

Patri URKIZU

# IDAZKI, KANTU ETA PSALMU

XABIER LETEREN PROSA ETA POESIAZ



**Azaleko irudia: Xabier Olariaga**

Ni hurbiltzen naiz euskal literaturara, baina konturatzen naiz ez dudala ez adinik ez gogorik ere ateratzen den guztia irakurtzeko. Ez naiz enteratzen. Pena ematen dit, eta batzuetan pentsatzen dut ofizio bat aukeratu behar banu euskal literaturaren kritikaria izatea aukeratuko nukeela: ateratzen den guztia irakurri eta sakon komentatu, eta komentatzerakoan azterketa konparatiboak egin, konparatista izan. Literatura guztietan egiten da hori, baina hemen sekulako pobrezia dago alde horretatik. Erreferente falta handia dago. Liburu asko argitaratzen da baina ateratzen dena ez da kokatzen ongi. Gustatuko litzaidake lan hori egitea, baina horrek bizitza oso bat eskatzen du, eta nik ez dut denborarik horretarako. Dena den, handik eta hemendik eskuratzen ditut liburuak, eta saiatzen naiz ahalik eta gehiena irakurtzen, edo bere garaian behar bezain sakon irakurri ez nituen idazleen lanak berrirakurtzen. Azkenaldian emakume poetak berrirakurtzen ari naiz bereziki: Aurelia Arkotxa, Itxaro Borda, Tere Irastortza ... Horrela ibiltzen naiz, ezin ailegaturik baina ahaleginak egiten betiere.

Inazio Mujika, *Xabier Lete (auto)biografia bat*. Alberdania, Irun, 2011, 201.



## BI HITZ ATARIRAKO

Etsipen antzeko zerbait dariten eta bokazio ezkutua agertzen diguten hitzok urte bat hil aurretik jaso zizkion Xabier Leteri Juan Luis Zabala idazle eta *Berria* egunkariko kazetariak<sup>1</sup>.

Lan mota ezberdinak egitea suertatu zitzaion bizitzan zehar Xabierri, eta emaitza aski modu trebean bildu zuen irratietan, egunkari eta aldizkarietan sakabanaturik zeuden elkarrizketak Inazio Mujikak aipatu *Xabier Leteri (auto)biografia bat* idazkian.

Bizi bidaia aski mugitu baten amaieraldean aipatzen digun ofizio afizio delako hori, ordea, neurri batean bederen Leteri gaztetan jorratu zuen Euskal Literaturaren parte diren eta jenero mota ezberdinei buruzko kanta, poemak, bertsolariak, teatroa eta nobelagintza aztertuz. Azterketa hauek argira agertzearen aldizkari zaharretan murgildu gara, KM kulturuneko hemerrotekan hain zuzen, artikulu gehienak euskaraz, baina gaztelaniaz ere multzo aski interesgarria topatu dugularik. Artikulu guztiok interes berezia daukate, hitz eta ukitu biziz hornitzen baititu irakurtu ahala sortzen zaizkion gogoeta eta iritzi pertsonalak, eta hemen laburbilduko ditugu ez zehazki urratsez-urrats, urtez-urte, hilabetez-hilabete idatzi zituen moduan, euskal literaturaren kronologiaren eta gaien arabera baizik, jarraipen zuzena

---

<sup>1</sup> *Berria*, 2009-I-30.

eginez, jauzika gaietan eta denboran ez ibiltzarren. Beraz, lehenik Teatroaz, gero Kantagintzaz, ondoren Bertsolaritzaz, Saiogintzaz, Narrazioaz eta azkenik Poesiaz egin iradokizunei buruzko aurkezpen eta komentarioa emango dugu.

Lehen partean, beraz, Leteren prosa lanez arituko gatzaizue eta bigarrean idatzi zuen poesiaz.

Hel diezaiogun, bada, astiro gaiari.

**XABIER LETEREN PROSA**





Xabier Lete Bergaretxe, jakina den bezala, Oiartzunen jaio zen 1944ko apirilaren bostean. Aita Fermin errenteriarra zen eta ama Edurne eibartarra. Herriko plazatik ez oso urrun atzeko partean parke bat zeukan *Landetxe* izeneko etxean sortu eta eliza, udaletxea, plaza inguruan hazi zen eta eman zituen lehen pausuak. Bost urterekin hasi zen ospital zaharrean zeuden mesedeetako lekaimkeen eskolan eta zortzirekin Herrerako La Salle San Luis kolejoan hamahiru urte arte. Herrikide gazte asko bezala kirolari trebe izan zen. Pilotari kontsejupean, mendigoizale aita bezala, atleta eta beste gaztetxo askok bezala futbolzalea, eta herriko ekipoan jokatzeko Madalensoron. Aski gogorra eta defentsa ona omen zen, diote ezagutu zutenek. Baina kirolaz aparte kultur mina ere aski goiz txertatu zitzaion.

## TEATROAZ

*LARTAUN*, *sociedad cultural, recreativa y deportiva de Oiartzun* (nº 1, mayo de 1960) 1958an sortu eta bi urte geroago maiatzan lehen boletina ateratzen denean, Xabier, jada hamasei urteko gazte sasoitsua, taldeko sozio ageri zaigu. Elkarteak bazeukan biltze leku bat plaza ondoan honako titulua zeukana atean: *Bakarrik sozjuntzako*. Txapela ikurra ezarrita u bokalaren gainean.

Iñaki Arbelaitz, Xabier Lete eta Eugenio Arozena beste oiartzuar batzuen laguntzarekin, noski, izan ziren bertan mamitzen ziren egitasmoen bultzatzaile eta arima. Honela 1963ko hasieran Errenteriako Alameda antzokian Biktor Ruiz Añibarro kazetariak (Pasai Antxo 1900-Buenos Aires 1970) idatzi eta Nemesio Etxanizek itzulitako *Ito...edo*

**ezkondu** antzeztu zuten, 61ean JARRAI taldekoek jada Antzoki Zaharrea Donostian jokatu. Oiartzuarren taldean zuzendaria Manuel Juanes izan zen, dekoratuak Juan Antonio Letamendia apaizgaiarenak ziren eta Xabier Letek, besteren artean, morroiaren papera egin zuen.

Harremanak, LARTAUN aldizkariak azpimarratzen duenez, oiartzuarren eta Donostiako JARRAI teatro taldekoen artean estuak izan ziren. Eta horrela jadanik hauek Antzoki zaharrea 1960ko abenduaren 22an antzezturik zuten Pedro Muñoz Secak idatzi *La cartera del muerto* eta Teatro del Centro-n Madriden estreinaldiz 1920an emandakoa, Anjel Egañak **Nor da erruduna** bezala euskaratua, herriko jaietan, hau da Xanixtebanetan, abuztuan antzeztu zuten. Zuzendaria oraingoan ere aipatu Manuel Juanes zen eta Xabier Lete berriro antzezlarien artean zegoela.

Urte berean, 1963an alegia eta agorrilaren 21ean San Telmoko Antzokian, Eugenio Arozenak<sup>2</sup> jasotzen duen bezala, Enrique Jardiel Poncela gaztelaniazko idazlearen **Udaberriko gau artan lorik ez** aurkeztu zen eta Xabierrek Marianoren rola bereganatu zuen eta Jon Andoni Arozenak Balendinena, baina jada JARRAI taldearen barnean. Itzultzaile Lukas Dorronsoro zen, apainketa lanez arduratu zena Rikardo Ugarte eta zuzendaritzan Mikel Azpiazu aritu zen.

LARTAUN boletinean (1963-1964) “Fomento cultural” sailean Javier Letek gaztelaniaz idazten du eta aipatzen zein antzerki ari diren prestatzen eta zein asmo dituzten urterako.

Eguberrietan John Bayton Priestley antzerkigile ingelesaren *An inspector calls*, Julian Lekuonak **Ertzaina etxean** bezala prestatua antzeztu zuten. Urte bat lehenago Jarraitarrek

---

<sup>2</sup> Eugenio Arocena, *Enskal Antzerkia Oiartzunen*. Mugarri, Oiartzun 2006, 100.

Donostian plazaraturik zutena. Oiartzuarren zuzendaria berriro Manuel Juanes izan zen eta Xabier Letek ere parte hartu zuen, Moises Gonzalez, Jesus Mari Iriarte, Kontxi Lopetegi, Kontxi Gonzalez eta Arantza Zapirainekin batera.

LARTAUN aldizkarian 1964ko urriko zenbakian aipatzen da, nola sortu den Teatro komisionan ordezkari bezala hautatua izan den *Javier Lete*. Eta nola jadanik hasia den Alfonso Sastreren ***Sei gizon eriotzaruntz*** lanaren entsaioetan eguberrietan antzokiratzeko asmoz. Eta data zehazki emanez, 1965eko urtarrilaren batean eta bian jendeak gogo biziz espero zuen obra oholtzaratu zuten.

Gabriel Arestik Xabierri eta oiartzuar antzezleei ***Justizia txistulari*** antzerkia eskaintzen die 1965ean, idatzi zuen grafia kontserbatzen dugularik hain justu ondorengo aipuan:

JUSTIZIA

CISTULARI

Bi zatitan

Konpondutako ancerkia

1965

Jabier Lete´ri

Eta bere oiartzundar guztiei<sup>3</sup>.

Honekin batera datorren oharrak dio Gabriel Arestik propio, euskara arkaiko batetan idatzi zuela, euskera batuari aurrerabide azkarragorik ematen ez zitzaiolako. Teatro obra hau

---

<sup>3</sup> KM kulturunea. 091 MS 94-95.

Oiartzungo LARTAUN taldeak estreinatu zuela Xabier Lete zuzendari zela, eta euskera “normalago” batetara eraman zuela, Arestik onartu baitzuen ahoskatzerakoan ez zegoela antzematerik zer grafia zuen. Pertsonaien klabeak Arestik berak ematen dizkigu: *GABON EDER gure euskera da*, *PERNANDO LISTU lehengo jenerazioa*, *CORDON PILOTA*, *oraingoa...* *euskeraren esilo berria (edo zaharra) Axularren eta bertsolarien arteko ezkonça (sic) ortografia berri honek benedikatua.* (Donostia 1965/9/25an. Eta Xabierrek dioen bezala “Gabriel Arestiren heriotzean” (ZA, 1975-VI-15) izendatu nekrologikan estreinaldi apal eta injenuoan hantxe zegoen egile bilbotarra Oiartzunen bere emazte Melirekin.

Aurkitu ditugun Xabierren lehen hitzak ZERUKO ARGIAN Joseba delako batekin agertu elkarrizketa batekoak dira (1965-I-24) eta titularrean honako hitzok nabarmentzen dira: “*Arestiren “beste mundukoak eta zoro bat” ekin teatro berria asi zela, esan genezakegu, dio Lete ‘k’.*”

Artikulu-elkarrizketan egiten ziren aldarrikapenek sortu zuten erantzunei ihardesten dio Leteren beste honako artikuluak “*CARRASQUEDO OLARRA jauna eta beste batzueri*” (1965-V-23). Hauxe zioen Xabierrek zehazki, alegia, ez soilik euskal teatroa, nobela eta euskal literatura oro har bostehun urteko atzeramenduaz zebiltzala. Eta galdetzen dionean *Xabier, zer diozu euskal teatrotaz*, erantzuten dio:

Azken denbora auetan Lartzabal jauna izan da euskal teatroari kolore pixka bat eman diona. Bizkai aldetik, Zubikarai jauna ere jarri genezake lan prestu batzuen jabe bezela. Baño nere iritziz Gabriel Aresti izan da euskal teatroa kalidadezko bide berrietara zuzendu zuena. Joan dan dagonillaren 13an ikusi gendun Donostin ***Beste Mundukoak eta zoro bat*** Arestiren obra jatorra eta esan genezake egun artan eta obra arekin asi zela euskal-teatro berria.

Ez da harritzeko Karraskedo eta gerraosteko egoera zail haietan hainbat ahalegin egiten zuten beste zenbait antzerkigile (Karraskedo, Labaien eta Sarriegi besteren artean) minberatuak sentitzea, eta Eibarko biltzarrean elkar ezagutu ondoren Xabierrek azkenean esatea: *bihotz-bihotzetik barkazioa eskatzen diet*. Eta bukatzea artikulua honela: *Orrela ba, errudun aitortzen naiz, barkazioa eskatzen dizuet berriro bihotzetik, eta urren ikusten geranean lagun bezela artuko nauzuten konfiantzan gelditzen naiz*.

Arestik propio oiartzuar taldearentzat idatzitako ***Justizia txistulari***, beraz, 1966an plazaratu zuten arrakasta handiz. Gero etorri ziren Manuel eta Martin Lekuona gerra aurretik idatzitako ***Eun dukat*** (1967) eta Piarres Larzabalek idatzitako ***Lartaunen historia*** (1970), zeina erabaki zuten Arozenak eta Letek pastoral eran moldatzea. Hau ikusi zuenean egileak barren-barrendik atera zitzaion, *hau ez da nire antzerkia*. Estilo berean ere antzeztu zuten ***Aralar*** (1972), eta azken bi obra hauetan musikaz arduratu zena Xabier izan zen.

Donostiako JARRAI teatro taldearekin lan egin zuen, beraz, esan dugun bezala 1963an Jardiel Poncela-ren ***Udaberriko gau hartan lorik ez*** eta 1967an Albert Camus frantses idazlearen *Les Justes*, ***Gizon zuzenak*** antzeztuz. Kontutan hartuta zein emankizun gutxi izaten zituzten garaiko antzerkiek, izan zuen oihartzunik azken obra honek, Donostia, Ordizia, Tolosa, Bilbao, Zarautz, Errenteria, Hernani, eta Urretxun bederen eman baitzen, eta izan baitzuen halaber prentsan iruzkinik.

Miguel Azpiatzuk adibidez (*Unidad*, 1967-III-13) *Rincón del Teatro* sailean komentatzen du Camusen obra hain sakona izanik, hainbeste kezka filosofiko eta humanistiko dituen irakurtzeko antzezteko baino egokiagoa dela. Ikuskizuna *korrektoa* izan zela, pertsonaia bakoitzaren ezaugarriak aipatu eta ongi azpimarratuak daudela obran duda eta zalantzak, sakrifizioa hutsala agorra bilaka daitekeelako. Ongi marraztuak zeudela ere poliziaren razionaltasuna eta Dukesa alargunaren erlijiotasuna. Antzezleei zegokienez nabarmendu behar zela Arantza Gurmendi Doraren paperean, Xabier Letek, aldiz, testuaren zama

daramanak laugarren ekitaldian oihu gehiegixko bota zituela, Camusen esentziatik urrunduz; eta tamalez antzezkiunean zegozkion isiltasun uneetan apuntadoreari entzuten zitzaiola, ez zena batere polita, eta akats hau zabaldua zegoela teatro afizionatuko talde gehienetan.

Jabier Aramburu kazetariak (*La Voz de España*, 1967-III-14), gaztelaniaz ere honek, noski, jende ugari bildu zela aipatzen du, igande goizeko hamaika t´erditako ikuskizunera. Indar haundia duela testuak, baina gai garrantzitsu horiek tratatzen dituenan ezin duela alde batera utzi bere barneko poetikotasuna. Nola kontrajartzen dituen Yanek Yliayev poeta eta iraultzaile idealista Steven Federov, iraultzaile hotz eta gorrotoz betearekin. JARRAI taldeak bere buruari ezarritako froga gogorra bikain batekin gainditu zuela, aktore guztiek hala nola zuzendariak beren lanak ongi baino hobeto burutu baitzituzten.

*Herria* astekariko komentariogile ezezagunak, eta euskaraz eginiko iruzkin bakarrak (1967-III-30) ildo beretik dihardu, esanez Jarraikoek errotik ikasiak zituztela lerro-sail luzeak, eta jendeak (Tolosako Gorriti antzokian zeudenak) biziki txalotu zituztela bereziki Elizari eta Aberriari buruz eginiko solasak, eta jokalaria arras onak eta ongi moldatuak kausitu zituela.

Xabierrek lehen aipatu dugun bezala teatroan murgildurik zebilen baina ez soilik antzezle gisara komentariogile bezala ere bai, eta berrogei antzerki inguru burutu zituen Augustin Zubikarairen, zeinak Pierre Larzabal eta Antonio Labaienekin batera gerraondoko teatro gizon hirukote nagusia osatzen zuen, Lapurdi, Gipuzkoa eta Bizkaia errepresentatuz, ***Bizi garratza*** eta ***Mendu zaharrak*** obrei ipinitako hitzaurrean zioena ekarriko dugu hona:

Izan ere, Agustin Zubikarai aipaturiko gerla osteko giroan bere teatro lana osatu duen idazlea da. Eztut honekin garai hartara bakarrik lotu nahi. Gaur ere idazten du, eta nere ustez inoiz baino hobeto; bainan, hala ta guztiz bere pentsakeraz, izakeraz, edadez, eta idazkietako giro berezi horrek adierazten digunez, garai hartako egile klasikoa da, [...] Bere teatroa, ia beti,

kezkadun eta prolemadun teatroa da, drama edo komedia eran osatua eta erabilia, klasikoki soluzionatua bai ideietan eta bai eszenerako eraketan. Teatro burjes klasikoa beraz. [...] Zubikaraik ba du halako erreztasun berezi bat bere obren pertsonaiak eszenan ezartzeko, definitzeko eta mugitzeko. Era klasikoan planteatzen du bakoitzaren zer-esana eta zer-ikusia, bainan errez erabiltzen du gaia eta pultsu sendoarekin eramaten ditu aurrera, berak ezarri nahi dien papera ondo beteaz. Dialogoak, elkar-hizketak, guztiz trebeak eta pizkorrak dira; abildade haundiarekin mintza arazten ditu bere pertsonaiak, era herrikoiean gaiñera, herrikoikerietan erori gabe; naiz eta batzuetan, noizik behin, dialogoaren bizkortasun eta bizitasun horrek berak hizkuntzaren aldetikako “barrokotasun” pittin bat enbazogarria sortzen badu ere. [...] Zubikarai bere alde on eta txarrekin, osotasun eta hutsegiteekin, teatroa seriooki hartu duen gizona izan da. Hortik dator bere ekintzearen baliotasuna eta horregatik da bere lana estimagarria. Publikorik gabe eta girorik gabe hainbeste urteetan lana serio eta segian egin duen gizonak gure estimazio osoa eta esker ona merezi du<sup>4</sup>.

Bere herriko teatro taldea INTXIXU ez du ahazten, noski, eta adiskide duen Eugenio Arozena zuzendariari laguntza aparta emango dio behin baino gehiagotan, obrak idatziz, eta musika jarritz, hala nola jendea animatuz ikustera joan dadin<sup>5</sup>. Obren artean honakoak dira

---

<sup>4</sup> Xabier Lete, “Sarrera”. Augustin Zubikarai, *Bizj garratza, Mendu zaharrak*. Irakur sail, Donostia 1970.

<sup>5</sup> Xabier Lete, “Oiartzungo INTXIXU teatro taldea”, ZERUKO ARGIA (Aurrerantzean ZA) 1972-X-29.

tituluak: **Alzateko jaun**, Pio Barojaren obraren itzulpena (1973), zeinaren argumentuaren laburtzea, sinopsia, gaztelaniaz egin zuen zentsurarentzat. Testuaren hitzaurrean honakoxea idazten dio Eugenio Arozenari:

Eugenio, hor daukak sinopsia. Ikusiko duken bezela, moldaketa batzuk badizkik, batez ere interpretazio politiko aldetik. Dena beharrezkoa izango zaigula iruditzen zaitak obra aurrera ateratzeko. Uste diat obraren frase bat kendu egin beharko litzakeela. Bihar telefonoz esango diat zein<sup>6</sup>.

Ohiko zen bezala eskatu zen baimena errepresentatzeko eta Ministerio de Información y Turismoko “Espectáculos” sailetik iritsi zen agindu bat (1973-XII-11), non debekatzen zen obra antzeztea espreski hitzokin: *...quedando en consecuencia prohibida la representación por el Grupo Teatral [INTXIXU] la obra titulada ALZATE-ko JAUN en versión de Xavier Lete*’.

Obra hau dena den, 1979ko abenduaren 21ean antzeztu zen, hau da Santo Tomasen egnean Donostian, eta Eugenio Arozenak argitaratu egin zuen 1983an, ANTZERTI bildumako 62. zenbakia bezala 1983ko urrian. Pio Barojaren sarrera eta bukaera honela itzuli zituen Letek:

URTZI-THOR. — Agur, Agur, itsasotik hurbileko Auñamendiak !

Mendi legun eta argitsuak. Izar berde eta epelak ! Herrixka alai irrifartsuak!

---

<sup>6</sup> KM kulturunea, C-380, F-19. Armiarma.eus: Itzultzaileak: M<sup>a</sup> Dolores Agirre / Felipe Yurramendi (Edili 1984); Patxi Apalategi (Baroja 1986).



Agur, aurpegi zorrozturn euskaldun harro eta argiak ! Agur, neska alai dantzariak ! Nere basamortu hotzetara itzultzen naiz. Agur, Agur.

Francoren heriotza ondokoak dira idatzi eta argitaratu zituen: *Antzerkia deus ere ez izatetik izatera* (1977), *Txirritaren astolasterra*<sup>7</sup> (1977) eta *Leben Karlistadaren kronika (1833-1839)*<sup>8</sup>. Azken obra hau berrogei alditan baino gehiagotara eman zuten Euskal Herrian barrena.

Badu artikulu bat ere honako tituluz “Xuberoako Santa Garazin Pastoralaz” (ZA, 1976-VIII-8/15), alegia, Junes Casenavek idatzi eta Zuberoako herrixka horretan jokatu zuten *Santa Grazi* pastoralaz. Pastoralen historia zertxobait azalduz eta Pierre Lafittek eginiko hitzaurrea goraiatu ondoren, kritikatzin ditu ere zenbait puntu. Adibidez, turkak eta girstinoak aipatzerakoan gehiegi sinplifikatu duela, dio, ez baitzaio egoki iruditzen Joana Albretekoa turken taldean agertzea. Gaia aski sakabanatu eta luzexta iruditu zitzaion ere atsedenaldira proposatuz, bertan turkak bere jan-edanak proposa ahal ditzaten eta ez funtzioaren barrenean, eta beste.

Halere, ez zen Xabier, soilik euskal teatroaz arduratzen, ezen JARRAI taldeak bultzaturik Donostian jokatu zuten beste zenbait obraren artean *LIVING THEATRE*<sup>9</sup> talde ingelesak, Ricard Salvat-en zuzendaritzapean Salvador Espriuren *Prima estoria d’Ester*<sup>10</sup>, non herri judua katalanarekin konparatzen den, — ezin ahantziz Frankoren diktadura —, *Els*

---

<sup>7</sup> Eugenio Arozena & Xabier Lete, *Antzerkia deuseztik izatera, Txirritaren astolasterra*. Itxaropena, Zarautz, 1977.

<sup>8</sup> KM kulturunea, C-380, F-14.

<sup>9</sup> Xabier Lete, “Living Theatre. Eskandalatik azterketara”, ZA, 1967-XI-28.

<sup>10</sup> Xabier Lete, “Katalandar teatroa: Prima historia d’Ester”, ZA, 1968-I-21.

*Joglars*<sup>11</sup> Donostiako Anoeta pelota lekuan antzeztu zuten *Joan Sala, alias Serrallonga*-ren komentario txit interesgarria, aipatuz nola mimotik (*El joc, Cruel Ubris...*) igaro ziren teatro historiko iraultzailea prestatzera XVII mendeko bandolero famatuaren bizitza taularatu.

Teatroaz at interesaturik zegoen ere Xabier zineaz, eman zituelarik kronikak Serguói Einsenstein zinegilearen *Ivan Izugarria*-z (ZA, 1971-III-7), Giorgio Bassaniren nobelan oinarritutako Vittorio de Sicaren *Il giardino dei Finzi-Contini*-z, 1971ko Berlingo zinema festibalean sarituz (1973-XII-9) eta “Vitorio de Sica-ren heriotzean” (ZA, 1974-XII-8), Donostiako Nazioarteko XXIII Zinemaldiaz (ZA, 1975-X-5), Orson Wells-en *Question Mark Fake*-z (ZA, 1975-III-23), *Pier Paolo Pasolini*-z (1975-XI-23), eta Luchino Viscontiren *La Caduta degli Dei*-z (ZA, 1976-III-29), besteak beste, non benetazko zine onaren arte eta entseiuko aretoen zale amorratua ageri zaigun eta iruzkingile fina.

## KANTAGINTZAZ

Xabier Lete zerbaitek ezagunarazi bazuen kantagintzak egin zuen ospetsu, herriz herri ibili baitzen kantari, Iparragirre bezala gitarra lagun, euskal kantak kantatzen. Milabederatzirehun eta hirurogeita seigarren urtetik, Seguran estreinatu zenez geroztik, plazaz-plaza eta antzokiz-antzoki kantatu zuen Lourdes Iriondorekin batera, *Ez dok Amairu* taldearekin edota bakarrik Anton Valverde musiko adiskidearen konpainian. Berrogeita lau urte inguru igaro zituen entzuleen aurrean bere kantak eta irakurketak ematen, eta

---

<sup>11</sup> Xabier Lete, “Els Joglars”, ZA, 1974-XII-15.

esperientzia luze honek eman zion zer hausnartu eta zer idatzi ofizioaz. Kanten antzeaz, arteaz eta gizarteaz.

Arlo hau benetan modu bikainean ukitu dute Joserra Garzia eta Antton Valverdek 2011ko *Hegats* 47 literatur aldizkarian<sup>12</sup>, eta irakurleari biziki gomendatzen diot bertara jotzea. Bestalde gehien landutako arloa zela azpimarratu nahi nuke, hamabi diska bederen plazaratu baitzituen, Bertsolaritzakoak barne. Bertsolaritzak bere poesiagintzan izan zuen eraginaz behin baino gehiagotan mintzatu zen ere egin zizkioten elkarrizketetan.

Kanta herrikoiaz lau artikulu<sup>13</sup> sakon eta luze plazaratu zituen Zeruko Argia-n, 1970eko azarotik 71ko otsaila arte, aztertuz kantaren etorkia eta problematika. Hona nola hasten den:

Ez dakigu zergatik kantatzen den. Baina kantatzea, sentipenak eta ideiak kantaren bidez adieraztea, gizonen betiko ohitura izan da; instintuari jarraituaz edo, mendetan zehar egun izan ohi dugun zerbait. Harriarogan, gure aurrekoek harkaitz-zuloetan bizi ziranean, kantua ziur asko, orru bat izan zen; orru estilizatua, agian. Harriarotik telebisio-arora dijoan tartea ez da hain haundia, hala ere. Bitartean solfeoa asmatu da, eta hit-parade diralakoak ere bai. Baina funtsean ez dut uste gauza asko aldatu denik...

Eta Xabierren kantaldiak nolakoak ohi ziren hainbat eta hainbat aldiz adiskide eta musiko laguntzaile izan zitzaion Antton Valverdek honela kontatzen digu, aipatu artikuluan:

---

<sup>12</sup> “Joserra Garzia, “Xabier Lete: guztien lana guztien esku”, 39-50; Antton Valverde, “Xabier Leteren musika”, 51-56. HEGATS 47. EIE, Donostia 2011.

<sup>13</sup> “Kanta herrikoia prolema bezala” (I-IV). ZA, 1970-XI-1; 1971-I-10; 1971-I-17; 1971-II-7.

Berdin Bermeon edo Oiartzunen, jaialdia hasi baino lau edo bost ordu lehenago antolatzaileekin elkartzen ginen azken detaileak zehazteko. Argiek eta mikrofonoek ordurako prest egon behar zuten, eta probak egiten hasten ginen. Kantaldia antzoki batean egin behar bazen gauzak nahiko agudo eta ondo preparatzen ziren; baina herriko frontoian tokatzen bazitzaigun, orduan hasten zen kalbarioa. Neguan pasatzen genituen hotzak eta hezetasunak ez ziren nolana hikoak. Oso zaila eta garestia izan ohi da frontoi bat berotzea, eta hotza pasatzen genuen. Entseguak eta probak egiten hasiak ginenean bisitak zetozen: inguruko irrati-emisorako bi edo hiru gazte hurbiltzen ziren Xabierrekin elkarrizketa bat grabatzeko asmoz, edo herriko ikastolako neska-mutiko talde batek maisuak jarritako debereak zekartzan. Denek nahi zuten Xabierrekin egon: entrebista eta argazki batzuk, galdetegi bat bete, edo auskalo ! Horrela pasatzen zen denbora, eta entseguak korrika eta presaka bukatu behar izaten genituen. Publikoa etortzen hasia zen eta kanpoan zegoen, atek ireki zain.

Aurreko egunetan egiten genituen entseguetan kantak aukeratzen genituen, eta zerrenda osatu. Baina kantatzera gindoazen lekuaren arabera aldaketa batzuk egitea pentsatzen bagenuen — batez ere frontoia bazen, edo antzokia —, taberna batera joaten ginen, papera eta boligrafoa hartuta, errepertorioa erreparasatu eta ordenan jartzeko.

**Ni naiz** kanta gustatzen zitzaion Xabierri hasiera emateko. Lau edo bost abesti serioren ostean katxondeozko bat sartzen genuen, giroa pixka bat lasaitzeko. Eta taktika horrekin jarraitzen genuen kantaldiaren azken aldera arte, non gure iritziz garrantzizkoenak ziren abestiak programatzen genituen.

Behin aipatutako abestien ordena edo gidoia bukaturik, antzoki edo frontoirako bidea hartzen genuen, jaialdia puntual hasteko intentzioarekin. Eszenatokira atera eta, besterik gabe, *Ni nai* zetorren; gero jendeari agurra eta eskertzea, gu entzutera hurreratzeagatik; gero musikarien aurkezpena banan bana, bakoitza zutitu eta txalo batzuk jasoaz. Ondoren, kanta bakoitzaren aurretik, Xabier azalpenak ematen hasten zen. Abesti serioetan, serio gainera. Beste poeta baten olerkiren bat kantatu behar bagenuen, horretaz aritzen zen, haren literatur estiloaz, haren garaiaz edo beste edozein detailez. Giroa arintzeko botatzen genituenak aurkezterakoan beti lortzen zituen jendearen barreak. Horrela iristen ginen errezitaldiaren amaiera aldera. Bukatu zela esaten zuenean, jendea *beste bat* eskatzen hasten zen. Guk gehiegi luzatu gabe botatzen genuen propina.

Kantaldia bukatutzat eman eta jaso behar genituenak jasotzen hasten ginen. Gero, kotxean sartu eta, nekatu arraio eginda, etxera.

Aldaera txiki batzuk gorabehera, horrelakoak izaten ziren gure kantaldiak.

Baina esan dugun bezala ez zen kantautore soilik Lete, beste kantariak zer egiten zuten ere interesatzen zitzaion jakitea, eta horrela autore frantses, katalan eta ingelesak ere itzultzen eta komentatzen zituen aipatu dugun *Zeruko Argia* edo *Jakin* aldizkarietan.

Adibidez Arantzazuko fraideen errebistan, alegia, *Jakimen*, artikulua titulu hau aurki dezakegu: “Joan Manuel Serrat edo Eurovisionera joan nahi ez duen mutila” (1968, nº 30, 40-41). Gogoan ditut oraindik, Salamankan istudiante ginelarik, garaiko eztabaidak diskutituz ea ongi egiten zuen edo ez gaztelaniaz kantatuz katalanez bakarrik egin beharrean, edo zein zen jatorrago, zein ote zen biderik egokiena, Serratena ala Raimonena. Geroxeago Francesc

Pi de la Serraz mintzatuko zaigu (ZA, 1971-VI-30), Donostian ekainaren lauean Teatro Zaharrean eman zuen kantaldia aitzakitzat hartuz, non kontsideratzen duen Europako kantari herrikoi hobereenen artean, eta non Raimonen iritziarekin bat egiten den, alegia, kanta espresio-bide bezala hartu dugun guztietatik entzuleari gehien eskaintzen diona dela. Eta bai Raimonek, bai Pi de la Serrak urtetan jardun izan dutela Kataluniako kantaera sakon eta kritikoaren buru, eta bide-erakusle bilakatu direla.

Lluís Llach-ez eta honen *Viatge a Itaca*-z ere mintzo zaigu (ZA, 1976-III-14). Obra hau, Konstantinos Kavafis poetak (1863-1933) idatzi zuela 1911an Homeroren Odisea ospetsua oroituz, Carles Riba poetak katalaneraz itzuli zuela eta Llachek kantatu eta diska plazaratu zuela, zeinak zabalkunde eta arrakasta handia izan zuen. Noski, ezaguna da munduan zehar itsas bidaiaren alegoria, arribadako portua heriotza baita. Ematen digu ere aipatu artikuluan poema baten zatitxo bat bai katalaneraz, bai eta euskaraz, zeina honela itzultzen duen:

Bidaia on bere herriari leial  
Izan zaizkion gudariei,  
Haizeen jainkoak bultza ditzala  
Beren ontziaren haize-zapiak,  
Eta beren borroka zaharraren erdian  
Aurki dezatela plazer gorputzik maitagarrienetan  
[...]  
Eta beren antsia eta helburu zaharretarako bideak  
Aurki ditzatela bentura on eta jakituri az beteak.

“Chilen hildako bi kantari”-z (ZA, 1974-II-17) artikuluan Victor Jara eta Anjel Parra kantariez mintzo da. Preseski Victor Jara 1973ko irailaren 16an hil zuten Pinocheten torturatuzaileek, baina Angel Parra, Violeta Parraren semeak zori hobea izan zuen ez baitzuten hil, baina bai desterrua pairatu, kartzelaren ondoren. Halaxe zion artikuluan barrena: *Ojala jasotzen ari geran albixteak gezur butsa balira, baina honelako kasoetan zoritzarrez notizia txarrak bakarrik izaten dira egiazko.* Eta modu honetan bukatzen: *Noiz iritsiko ote da mundu kaxkar hontan heroe eta biktimarik gabe denok bizj ahal izateko garaia ?*

“Kanta berria, erresistentzi abestia” (JAKIN, 1977, 4. zkia, 24-28), artikuluan errepassoa ematen dio hamabi urteko esperientziari eta bidaia honetan honako epe ezberdinak topatzen ditu:

1. Lehen fasea, edo errekupeazioarena.
2. Bigarrena: asperdura, kritika eta konparazioena.
3. Hirugarrena: errezital berezi eta kantaldi masiboena, eta
4. Laugarrena, idazten ari den uneko giroari dagokiona.

Azken une honetan ikusten du, beti nola hala neurri batean bederen beti izan duen arren, morrontza politikotik askatu nahirik dabilela kantagintza. Eta urte batzueko geroxeago, Donibane Garazin, hain zuzen 1982ko apirilaren 17an kantatzen duenean Artaso delako batek (ZA, 1982-V-2) egiten dionean elkarrizketa honako hitz nagusiekin laburbiltzen ditu aitorpenak. Hitz guttitan, euskal gizartearen zatiketaz kezkatu dagoela, eta hegoaldean inbitazioa egin izan baliote ezezkoarekin ihardetsiren zukeela, dena den, nahita ere, erdaraz ez litzaiokeela aterako deus. Bestalde, bere bidea ez zegoela ez *Egin-en* ez eta *Deia-n*, erdibide batean agian, aukera zaila izan arren hori.

Poeta eta kantautore katalanez aparte, frantsesak ere oso gogoko zituen, Leo Ferré, Jean Ferrat, George Brassens eta Jacques Brel (ZA, 1978-X-22) imitatu eta itzuli zituen, eta batipat azken hau.

Jabier Muguruza kantariarekin Donostian (2009-V-10) izandako eta gaztelaniaz argitaratuko zen elkarrizketan, honek eskatzen diolarik *Ez dok Amairu*-ren esperientziaz zerbait esan diezaion azpimarratzen du nola, euskal gizarteko kultur mundua behar haundiko unean zegoela, ahalegindu zen herri kanten mundura hurbiltzen, hala nola kanta berriak asmatzen, bai doinuak eta bai gaiak. Eta eragin handia izan zutenik ezin zela ukatu, bera partaideetarik garrantzitsuenetakoa izan zelarik. Bazituela, halere, hutsune zenbait taldeak, aipatu ohi ez direnak, adibidez, musika arloan, musikari eta konpositore onena, zeren eta gitarra kaxkar batez lagunduta ezin marabilarik egin, dio. *Orain 45 urte igarotakoan aitor dezaket hutsune eta eskasia hori, alegia, ez bilatu izana jende prestatuagoaren laguntza.*

Halaberetsu dio trantsizio garaia oso txarra izan zela euskal kantarentzat, ezen ordurarte artistek autonomia gutxi izan bazuten une horretan erabat galtzen dutela. Kantautorearen emanaldia aitzakia hutsa gertatzen baitzen errezitaletan jendea oihuka has zedin beren aldarrikapen eta esloganekin. *Ez zen hori nire gustokoa, azpimarratzen du, eta noizpait nire kontrako iritzia mikrofonoetatik adierazi nuen, baina hori ez zitzaien gustatu nire kantarikide zenbaiti eta orduan erretiratzea erabaki nuen.*

Baina ez bakarrik euskaraz, gaztelaniaz idatzi zituen ere artikulugari bai GARAIA, bai MUGA aldizkarietan, hala euskal kantagintzaz nola atzerritarrenez. Adibidez, “Canción popular, discografía, arte escénico” (GARAIA, nº 18, 1976-1977: XII-30; I-6), “Raimon, lliurament del cant” (GARAIA, nº 29, 1977-III 17/24), “Alan Stirell” (GARAIA, nº 30, 1977-III-24/31); “Cancionero popular vasco a través de la historia” (MUGA, 1979, nº 1, 90-98). Eta beste.



## BERTSOLARITZAZ

Antxoka Agirre kazetariak *Bertsolari* aldizkarirako (1999, 35 zkia, 16-21) Xabier Leteri eginiko elkarrizketako sarreran diosku, nola 50-60 hamarkadetako Oiartzungo bertso giro jatorra barru-barrutik bizi izan zuen Letek gaztetan, eta zaletasun hark sorkuntza markatu ziola. Nola herriko festetan beti izaten ohi ziren bertsolariak. Hamaiketan bukatzen zen Meza nagusia eta jendea elizatik irtetzerakoan gelditzen omen zen plazan oholtza gainean zeuden bertsolariak entzutera. Gauza bera esan dezaket neronek ere, Xabier baino bi urte gazteago izanik Lezoko giroaz. Oiartzunen abuztuko hasieran Sanixtebanetan bazen, Lezon irailaren erditsutan izaten ziren festa nagusietan, Santakruzetan bereziki Santo Kristoren plazan, antzina Plaza de la Constitución. Basarri, Xalbador, Mattin, Lasarte, Azpillaga, Lopategi, Uztapide, Agirre, Lizaso, Lazkano, Mitxelena oiartzuarra, eta beste zenbait ziren entzuten zirenak Amuriza eta belaunaldi berriak iritsi ziren arte. Baina ospetsu bilakatu ziren hauetaz aparte baziren beste batzuek bertso paperak saltzen ibiltzen zirenak eta ez hain ezagunak, zeinen bizitza gora beherak biltzen eta jasotzen Antonio Zavala, jesuita ikerlaria, ibilia zen. Adibidez, Mendaro Txirristaka<sup>14</sup>, izenez Eusebio Mugerza, (Mendaro 1874 – Pasaia San Pedro 1955) Oiartzunen bezala, Lezon, Erreterian eta beste zenbait herritan barrena bertsoak zabaldu zituen, eta oraindik jendearen memorian bizirik daudenak hala nola bertso elebidun matxista hauek: *En el barrio de Amara / Lolitan etxian / dan tripacallos con un cuartillo / errial batian...* Mendarokoaz bezala mintzatzen zaigu ere Joxe Joakin Urbieta “KAZKAZURI”, Oiartzungo *Zurko* baserrian jaiotako bertsolariaren filosofiaz. Artikuluaren

---

<sup>14</sup> Xabier Lete, “Mendaro Txirristaka, Duke de Kilimon”, ZA, 1974-XII-22.

bukaeran bertso batzuk ezartzen ditu, zeinetarik honako laukoa hautatu dudan, bertsolariaren eta langilearen umore punttua argi eta garbi adierazten duena baita:

Kantatutzera nua bertsu bat edo bi,  
Kazkazurik jarriak bere buruari,  
Gustorik ez diot artzen bizimoduari  
Deskalabru pranko gertatu zait neri. [...]  
Txiki-txikitandikan arro ta tunante  
Kontrariua pranko, gutxi dut amante,  
Lan honek seituko nau bizi naizen arte  
Aitxurak eta palak muatuko naute<sup>15</sup>.

Asko estimatzen duen bezala bertsolarien jenio naturala, zorroztasuna eta dauzkaten ateraldiak, umorea bai beren buruaz bai besteenaz farregiteko, kritiko azaltzen zaigu jaialdietan zenbait gaijartzaile ergelek, maisu punttua eta jakituria demostratu nahiz ezartzen dituzten gai xelebreekin, eta arrisku handia ikusten du *agindutako gaien esale huts biburtzen* direlako maiz, eta ez bere kabuz eta taxuz askatasun osoaz, barnetik datorkien eran kantatzen ez dutelako, hala amaitzen duelarik:

Nik nahiago dut behintzat, noizpait bertsoan aspertzen banaiz,  
bertsolariak egun hartan txinparta gutxi izan dutelako aspertzea, ez eta gai-  
jartzaile ergel, sasi-jakintsu edo antuste baten gaiekin aspertzea baino<sup>16</sup>.

---

<sup>15</sup> “Bertsolari baten filosofia: Oiartzungo Kazkazuri”, ZA, 1974-I-20.

<sup>16</sup> “Bertsolari ala morroi”, ZA, 1974-I-13.

Dena den, ETB-rako eta Elkar diska etxerako prestatu zuen **berrehun urtez bertsoan** deitu grabazioan kronologia kanoniko baten barnean bertsorik onenak bere ustez kontsideratzen zituenak eta komentarioak egin zizkien. Hona hemen zerrenda: *Bertso zaharrak* (1974); *Txirritaren bertsoak* (1975); *Berrehun urtez bertsoan* (2001), *Xenpelar — Bilintx* (2001); *Otaño — Elizanburu — Etxabun* (2001); *Txirrita (I-II)* (2001); *Basarri — Uztapide* (2001); *Xalbador* (Elkar - 2001) eta *Lazkao Txiki* (Elkar - 2001).

Garai batean kritiko zorrotz batek zioen bezala *turba multa* zen bardoena, — eta gaur egun ere hala da —, koplari eta bertsolari ugarietz Antxolaren elkarrizketan egiten duen balorazioa, honakoa da:

Onenak, aberatsenak, Xalbadorrenak. Oso interesgarri eta dibertitua Txirrita; bere errejistro guztiak dominatzen ditu. Bihotza asko ukitzen dizun bertsolaria Lazkao Txiki; oso konposizio politak kantatzen zituen.

Eta gero finak, bakoitza bere lekuan jarriaz gero oso finak: Bilintx amodiozko bertsoetan. Xenpelar gizartearen kronista bezala eta Otaño Ameriketarako inmigrazioaren ispilu bezala. Oso bertsolari polita da Otaño.

Elizanburu ere deskubrimendu bat izan da niretzat. Ezagutzen nuen, baina ez nuen uste hain ona zenik. Bertso batzuk zeharo biribilak ditu...<sup>17</sup>

Garbi dago Otaño eta Elizanburu ez direla bertsolari eskolatu gabeak, eta sailkatzekotan poeten artean hobe leudekeela, baina argi dago ere Xabierrek titulua serieari

---

<sup>17</sup> Antxola Agirre, “Elkarrizketa Xabier Leterekin”, *BERTSOLARI*, 35 zkia, 1999, 16-21.

ezartzerakoan ez zuela, bertsolari idatzi, *berrehun urtez bertsoan* baizik, eta neronek hamar urte lehenago (Etor 1991) Patxi Intxaurrendietaren laguntzaz hainbat partitura ezarriz egin nuenean Iparraldeko bertsoen bilduma bi liburu lodikotan, *Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako bertso eta kantak* ezarri niola. Zehatzak izateko, ez dut uste adibidez, *Gazte hiltzera dohanaren kantua*, edo ezagunago dena *Solferinoko itsua* bezala, Antonio Maria Labaienek dioen bezala bere edizioan (1978), ongi kontserbatu arren honek lapurterazko kontsonante hasperendunak, — Xabierren diskoaren editoreak hamar estrofetatik sei ematen ditu libretoan eta euskalkiaren aipatu ezaugarria jaso gabe —, kontutan hartuta eskuzkribuaren grafia Elizanbururena dela, M.A. Salaberri delako batena baizik, bigarren saria irabazi zuena Anton Abbadiak antolatutako Sarako Lore Jokoetan 1864. urtean.

Bego bada horretan beste xehetasun eta luzamendurik gabe, bakarrik azpimarratuz Xabierrek zeukan gusto fina bertsorik onenak eta libertigarrienak, umoretsuenak hautatzeko unean.

## **SAIOGINTZAZ (ARTEAZ, POLITIKAZ, ETA BESTEZ)**

Ez dago inolako dudarik. Xabier Lete idazle engaiatua izan zen, konprometitua erabat gizon eta herri ezberdinen problematikarekin eta hori nabarmentzen da batipat bere lehen garaiko idazlanetan.

Honakoa zioen greziar mito zaharraren irudia bereganatuz “Sisifo, gure anai hura” lehenetariko artikuluan (ZA, 1965-X-31):

Sisifo gizon bat zen, eta rebeldia bat zela medio, Jupiterrek arkaitza asko ikaragarri mendi gallur batera igotzeko kastigua eman zion... [eta honela

bukatzen da] Eta nola gizonok arrazoirik gabe sufritzen jarraitzeko indarririk ez duten, arren deskonponketa honetan argi egin dezala eskatzen diogu Jupiter ezezagun horri, Sisifo 'k harriari bultzatzen jarraitzeko esperantza eta arrazoi bat topa ditzan. Garaia da.

Bitxiak dira zenbait artikuluren tituluak, zeren eta 21 urte bete berriak dituenean honela mintzo zaigu (ZA, 1965-XI-14) “Zahartu egin gera” titulupean, alegia, ametsik gabe bizi beharra, hamabost urtekin zeukan pasioa itzali zaiola, zeren eta hamazazpirekin zeukan fedea galdua baitu, ez duen arren zehazten oso ongi zertan, edo norengan.

Bere buruaz edo gizonaren kezkez at beste herrialdeetako egoera politikoez kezkatzen zuten ere argi eta garbi honako tituluak adierazten duen bezala: “Herri bat zapaldu dute” (ZA, 1965-XI-28), zeinak hasiera honakoa duen, *Munduan herri doakaberik inun baldin badago, herri hori Santo Domingo da. Izan ere, an gertatutakoak ez du izenik. An gertatutakoa billaukeri izugarri bat da, eta guk sinisten dugun Jainko horrek ez du batere balio, oraingo hontan Santo Domingoko borreroak suaz kixkaltzen ez baditu.* Eta Rafael Leonidas Trujillo diktadoreaz mintzatu ondoren honela bukatzen du: *EE.-UU. 'tarrak, euren interesak defenditzeagatik, herri bat zapaldu dute.*

“Europaren etorkizunari buruz” (ZA, 1965-XII-26) titulaturiko artikuluan guztiz kezkatu ageri zaigu momentu hartako munduaren jaidurekin eta norabidearekin. De Gaulle aipatzen du eta honen jokaera. Europak XX. mendean izandako gerrez, eta ez duela sekulan beste lurralde eta kontinenteetako beharrei begiratu, eta Europaren etorkizuna Afrika, Asia eta Hego-Ameriketara gosea eta pobrezia sufritu ez dezaten, herrialde hauekiko eskuzabalkiro jokatzea dela, mendeetan egindako lapurretak kitatzeko bidea...

“Gauerdiko ezkila urte zahar arratsean, requiem” (ZA, 1966-I-2.) artikuluan Oiartzun, Errenteria eta Lezo aldean kantatzen diren urte bukaerako koplak oroitarazten

dizkigu, *Dios te salve ongi etorri, gabon Jainkoak diela, legiarekin kunpli dezagun urte berriaren sarrera*, eta Luis delako bati zuzentzen zaio bakea desiratzen diola, hau dirudienez hil egin baita.

“Tarragona aldean” (LARTAUN, 1966-II-1, 420) idatzitako ixtoriotxoan bidaia ohiko baten kontatera ematen digu. Nola Eugenio Arozenarekin Vespa batean Nafarroa eta Aragoeko Monegrosetik barrena Tarragonara iristen diren eta hemen camping batean denda ezartzen duten. Beltzarantzen direla baina atzerritarrekiko harremanak zailak direla, eta horretarako hobe dela frantsesa ongi ikasita joan.

“Maitasuna eta eriotza” (ZA, 1966-VIII-7) Jorge Manrique poetaren poema ezagunaren estribiloaz hasten da, *eriotza dan itxasora doazen ibaiak dira gure bizitzak*. Eta honelaxe jarraitzen: *Egun batez jaio egin ginan; eta beste egun batean, gure bizitza oroimen bat besterik ez da izango garaiko gizonen artean*. Eztabaida filosofiko, teologiko existentzial batean murgiltzen da, gizonaz eta bizitzaz Unamunok, Sartrek, Miguel Hernándezek diotenarekin, eta ez da konformatzen pasio alferrikakoa, kapritxo beldurgarri bat izatearekin, eta bukatzen du esanez: *Sinistu egin nahi dut*.

“Jakín nahian” (ZA, 1966-IX-9) artikuluan berriro hautatzearen aurrean gizonak dituen zalantzak eta kezak aipatzen ditu, eta halaber bizitzan zehar sufrimenduak daukan garrantziaz.

“Hiru eskutitz Johnson ‘i’” (ZA, 1966-XI-27) deitu artikuluan dio hiru eskutitz eskatu dizkiotela, eta hiruretan gai bera erabili duela, Johnson eta puri- purian dagoen Vietnamgo gerra. Atzo Santo Domingo zen bezala, eta Hitlerrekin konparatzen du: *Hitler’ek Alemaniaren aunditasuna irixteko Europaren garbitasuna aseguratzekeo juduak il zituen; eta frantsesak eta rusoak, eta euskaldunak... / Zuk berriaz Ipar-Amerikaren poderioa irauarazteko okzidenteko zibilizazioa salbatzekeo beltzak iltzen dituzu, eta dominikanoak, eta Viet-Nam’ darrak eta kongoleñoak...*

Noski, zuka zuzentzen zaio Johnsoni, baina ez berorika, aurrez-aurre eta estilo gordinean aurpegiratzen dizkio egia garratz, negargarriak: gezurti eta diruzale hutsa dela.

Baina daukan boterea ez dela betirako izango eta hau egunen batean bukatzean, norbanakoak, gizon bakoitzak izango duela zer jan, askatasuna eta pakea...Eta noski, egun hori lehen bait lehen iristea nahiko lukeela.

“Herria, metafisika eta eskubideak” (ZA, 1967-XI-5). Honetan eztabaida luzeak sortu dituen galdera baten inguru-minguruaz mintzatzen zaigu, alegia, 1967an euskaldun izatea zertarako? Uste du horrelako galderak egiten hastea metafisikaren laino urrutietan zehar abiatzea dela. Inolako zentzurik ez duela, absurdoak direla. Zeren eta gizonak eskubide osoa baitu bere bizitzarekin gogoko duena egiteko. Eta maila berean jartzen dituela herriaren eskubideak.

Noizpait suertatuko balitzaio aukeratzea eskuina ala ezkerraren artean, dena dela garbi daukala zer hautatuko lukeen, noski, ezkerra aukeratuko lukeela. Hala dio “Ezkertasuna” (ZA, 1967-XII-3) artikuluan, non kezkatua ageri den ezker partiduen azterketa eginez gero hau nahiko krisian eta desmoralizatuta aurkitzen duelako, eta ezkerrek bere erresponsabilidade eta ahalen kontzientzia galtzen badu zer izango ote den Europa zahar honetaz, eta adimentsu eta zuzenki jokatzeko obligazioaz mintzo zaigu mito zaharretan gure burua justifikatzen entseiatu gabe.

“Herri artixtak herriarekin lanean” (ZA, 1967-XII-24) idazkian berriro artearen eginkizunaz mintzo da, eta artea sortzea dela dio, ez kopiatzea. Zinea, literatura edota pintura delarik aztergai begi eta irizpide idekiekin juzkatu behar direla. Autonomia eta konpromisoa azpimarratzen dizkigu artistaren betebeharrak bezala, eta zehazki herriarekin bat eta herriaren sufrimenduekin loturik joan behar dutela inolako traiziorik egin gabe.

“Betiko zezena toreatzen” (ZA, 1969-IV-6) manifestu antzeko bat da, Antonio Labaien zuzendua, honen gazteen kontrako purrustadak, txoro, arroputz eta antzeko mespretsu deiturak gaitzetsiz, eta dio zer esango lukeen Labaienek Baudelaire paristarraren poesiaz, hau ez izanik, ez gaurkoa edo atzokoa betikoa baizik. Halaber zirikatzen du Basarri,

-*Urtainen arazoak libre uzten dizkan momentuak aprobetxatuz*- gai baita esateko gazteen obren aurrean – *Gure salbazioa bide errezetik dago* -. Eta oso zaila dela Montaigne eta Pascal filosofoak irakurtzea eskola maisuek egunero Urtainen dotrina erakusten badute. Honakoak izan ziren sinatzaileak: Rikardo Arregi, Ibon Sarasola, Xabier Lete, Ramon Saizarbitoria, Xabier Kintana, Gabriel Aresti, Anton Santamaria, Amaia Lasa, Rafa Egiguren eta Joxemi Zumalabe.

Jarraituko du Letek bere artikuluak, komentarioak idazten Zeruko Argian, bibliografian ageri denez nabarmen, baina batipat musika eta literaturan zentratuz, horregatik hona politikarekikoak ekarriko ditugu oraingo aldiari, hala nola “Josep Pla eta Francesc Cambó” (ZA, 1974-II-10), lehenak argitaratu berri duen liburua aitzakitza hartuz.

Pla azken urteetan Katalunyak eman duen katalandar idazle langile, argi, jakitun eta famatuenetakotzat kontsideratzen du. Burges liberal bat ideia politikoen arloan, abokatu baina eskritore bezala bizi izan dena, lur jabe ttikia, burges nekazaria, *kúlak* bat, errusiar hitza erabiliz. Eta idatzi duen liburuak, *Francesc Cambó. Materials per a una historia*, politiko baten bizitzaz dihardu, Lliga Regionalistaren sortzaileetarikoa eta politikari adimentsuenetakoaz, zeinarentzat Madridedeoketik borrokan, *ahal denean ahal den guztia* lematzat daukana, hau da posibilismoaren liderra dela, eta euskaldunentzat irakasgai ederrak eman dizkiguna.

““ETA ABAR” Olariagaren umore liburua” (ZA, 1975-V-18) liburu berezia duen Xakilixut asmatzailearen aurkezpena ematen digu Letek oraingoan. Eta euskal umoregintzan izan dituen aitzindariak aipatzen: Arrue, Zabalo eta Letamendia... Azpimarratzen du umore honetan badela zenbait produktoei buruzko irri eta trufa, eta umore politizatua dela, irri handia sortu diolarik *Lepotik hartu ta segi aurrera* leloak. Seksual arazoei ere garrantzi handia ematen diola, adibidez Larrugorritxurekin zerikusia duten irudiek, eta interesgarria dela, Euskal Herrian horrelako liburu gutxi edo batez argitaratu denez gero, espresio-bide berri bat urratzen duelako.



ZERUKO ARGIA-z aparte Franco hil eta gero trantsizioa deitu epean gaztelaniaz idatziko du Xabier Letek GARAIA-n (1976), eta MUGA aldizkarian (1980), azken honetan Eugenio Ibarzabalekin eta Mikel Peciñarekin<sup>18</sup> batera hainbat artikulu.

ANAITASUNA, Bizkaian argitaratzen zen euskal errebistan ere parte hartuko du hiru artikulurekin: “Poetearen lurrak” (1969-X-30), “Ni bizi naizen lurrean” (1969-II-30) eta “Anaitasunaren zuzendari jaunari” (1980-V-16). Lehenean bizkaierazko adizki zenbaitez hornitzen du idazkia, eta kontatzen digu nola Aste Santuan Kastillarantz abiatu den, Sorian ikusi dituela prozesioak eta Antonio Machado “*toki guztietan aurkitu neban*”. Bigarreanean poema bat ematen digu, eta hamar urte beranduagoko hirugarrenean polemista sutsu agertzen zaigu, Txelis Alvarez, Endika de Miguel eta Jon Tapiak izenpetzen duten artikulu bat dela eta, salatuz Txillardegiren kontrako konplota delakoaren eragilea Koldo Mitxelena dela (ZA, n° 875). Frogak eskatzen ditu, eta frogarik ez badute rektifikatu dezaten eskatzen die. *Putasemeek ere badugu ohorea. Errespetuz*. Bi esaldi hauekin bukatutzat ematen duelarik gutuna.

MUGAn idazten dute ere eta argitaratzen *Manifiesto de los intelectuales vascos* (1980-V-27), zeina 33 intelektualek sinatu zuten, eta zeinari buruz dioen Eugenio Ibarzabalek, ez zitzaiela batere zail izan lortzea, eta askoz gehiago ere bil zitzaketeela. EAJ-koak ziren batzuek, beste batzuek ESEIkoak, PCE eta DCV-koak, hala nola Eduardo Txillida, Julio Caro Baroja, Gabriel Celaya, Agustín Ibarrola, Néstor Basterretxea, José Miguel Barandiaran, Juan San Martín, Xabier Lete, Gregorio Monreal, Julian Ajuriagerra, José Ramón Rekalde, Martín Ugalde, eta Miguel Castells Adriansens ... salatuz borroka armatua, ez duelako polizia

---

<sup>18</sup> Mikel Peciña Anitua (Gasteiz 194? – Paris 2018), historialaria, Pariseko Lizeo batean eta UNED-en irakaslea. Arabako historiaz, gerra zibilaz eta Pio Barojan aditua.

eta parapoliziaren errepresioa haunditu dadin besterik lortu, eta ondorioztatuz Euskadi ez zela zegoen egoeratik aterako salbatzaileengandik libratzen ez bazen.

Alfonso Sastrek erantzun zien (“Carta a 33 intelectuales vascos”) aski modu gogorrean, *Todos nosotros, y yo el primero, estamos contra la violencia. Pero no se lucha contra la violencia –al contrario- haciendo reverencias al Poder, sino estudiando seriamente sus causas, y denunciando y combatiendo implacablemente sus raíces. Su punto de vista es mentiroso y ridículo. La mayor parte de ustedes no ha hecho nunca nada contra la violencia...*

Erantzunaren lehen adierazpenetan ados egon gaitezke, baina bigarrenak egiteko eta modu horretan gutxieteko sinatzaileak ez dut uste arrazoirik aski zeukanik Sastrek.

Eta hamarte bat igaro ondoren aski isilik eta presentzia urriarekin euskal prentsan, ez bazen Gipuzkoak Diputazioko Kultura arduradun bezala antolatu ekintzetan, — hala salbuespen gisara har dezakegu ZURE FORU ALDUNDIA Gipuzkoako Diputazioaren errebitaren lehen alean 1988an idazten duen “Bi gizon eredugarri gogoan: Don Manuel Lekuona eta Koldo Mitxelena-ren oroitzapen eta gorasarrez”, artikulua *izenpetuta* sailean, non oiartzuar eta errenteriar idazleei buruzko parekotasun eta ezberdintasunez mintzo zaigun. Dibulgazioko lantxo arina, agian mereziko zukeena gehixeago sakontzea batipat karlisten gainean edota euskara batuaren inguruan edo beste zenbait gizagaietan zeuzkaten iritzi eta jarrera diferentzietan.

Eta EGUNKARIA n hasiko da berriz bere pentsamendu biziaren adierazpenak agertzen. Zehazki hamahiru artikulua izango dira, 1993ko azaroaren 28tik, 1995eko martxoaren 12raino doazenak, hemen ondoren bederen laburzki aipatuko ditugunak.

*Egia politikan ez da bertute, garaipenerako beste arma bai bai zik.* Nicollò Macquiavelliren hitzokin hasten zaigu “Gezurra ren gorai pamera”, (EGUNKARIA, 1993-XI-28), eta Albert Camus pentsalariaren beste aipamen batekin, alegia, norbaitek zuri begira soa zuzenduz egia oso eta sinzeroa eskatzen badizu prometi iezaiozula, eta gero esateko entzun nahi duena.

Hala bada azpimarratzen duen bezala, *ongi pentsatzen jarri ezkerro, gezurra esateko eta insinzeroki manifestatzeko arrazoi asko daude*, dio, eta honako gezur moten sailkapena ematen digu: 1) Gezur oportunistak; 2) Gezur sentimentalak; 3) Gezur errukitsuak; 4) Gezur estratejikoak, 5) Gezur desesperatuak; 6) Gezur xebreak eta efektistak; 7) Gezur komoditatezkoak; 8) Gezur adetasunez apaindurikoak; 9) Gezur erabat profesionalak; eta 10) Beste gezur asko. Ondorioztatzen duelarik onartu beharra dagoela gezurra dela azken finean giza-harremanen usadioak biguntzen duen tresna, erraminta eta gure bizikera ahalmentzen duen mekanismo nagusia.

"Gu, zaharrok" (EGUNKARIA, 1993-XII-26) artikuluan salatzen digu gazteriarri zaborra eta arrazoia (bidenabar) ematea normala bilakatu dela, horrela kaltea besterik egiten ez zaiolarik.

"Jubilatuen ezkontzak" (EGUNKARIA, 1994-I-23) titulaturakoan hain modan diren zaharren arteko ezkontzak, sexoa eta gimnasia guzti horiek gaztetako kontuak direla, nahi duenak nahi duena esan, eta Jacques Brel kantari frantsesaren *Le dernier repas* kantaren bertsoekin bukatzen du:

À mon dernier repas je veux voir mes frères

Et mes chiens et mes chats et le bord de la mer...

Je veux qu'on y dévore après quelques soutanes

Une poule faisane venue du Périgord...

Puis je veux qu'on m'emmène en haut de ma colline

Voir les arbres dormir en refermant leurs bras...

Baina desio honetatik urrun, tokitan gaudela, ez txakur, ez katu, ez itsaso, ez hegazti, ez mendixka, ez zuhaitz...

"Aranismoaren aker beltza" (EGUNKARIA, 1994-III-20) idaztea bururatu zitzaion Juan Aranzadi irakasle eta idazlearen mintzaldi bat Donostian Milenarismoaz entzun eta gero, kontsideratuz hainbat ilustratu liberalek (Aranzadi, Unzueta, Martinez Gorriaran, etabar) euskal nazionalismoa fundamentalismo irrigarri batetara erreduzitu nahirik dabiltzala, eta Sabino Aranak, Bartzelonan ikasitako katalandar nazionalismoa honat ekarri zuenean, ez zituela ideia hain aldrebesak erabili.

"Kulturaren erretolikak" (EGUNKARIA, 1994-IV-17) izendatutakoan kulturaren inguruan diren esamesak eta kontsiderazio ezberdinak ditu gaitzat. Umore pixkat ere badakarrelarik Albert Boadella *Els Joglars*-eko aktore histrionikoak dioena errepikatzean, alegia, kultur zuhur bakarra agrikultura dela. Bestalde gaur egun, egiazko kultura bakarra espezializazioarena dela, eranstean du, baina hala ere kultura humanista, inplikazio etikoak dituen, eta Errenazimendutik honuntz datorrena, adimena agitzeaz eta izpiritua fintzeaz arduratzen dena dela berari interesatzen zaiona.

"Hirien dekadentziak" (EGUNKARIA, 1994-V-15) dihardu honakoan, Donostiaz, Kordobaz, Firenzez edota Tarragonaz, eta hiriak neurri batean sakratuak direla, nazioak eta hizkuntzak eta kultura bezala, eta beraz, samurtasuna eta mimoa behar dutela.

"Mintza gaitzen Espainiaz" (EGUNKARIA, 1994-VI-12) artikuluan hain ezagunak diren ohiko leloez mintzo da. Maiz erabiltzen dela *Castillan izan naiz* esaldia, Espainia hitza saihestearren, edota "Gu ez gaude Espainia eta Espainiako herrien aurka, Madrilen aurka baizik", etabar, baina bera Espainian zehar gustora ibiltzen dela eta oso ongi eta oso etxean sentitzen dela, eta zernahi delarik ere, Antonio Machado, bere poeta maitatuenetarikoak zioen bezala: *La verdad es lo que es / y sigue siendo verdad / aunque se piense al revés.*

"Artearen noraezaz", (EGUNKARIA, 1994-X-9). Oraingoan egungo artearen gainean mintzo zaigu. Nola Tapias-en eboluzioa ezin duela inolaz konprenitzen ahal. Inork ulertzen al du? Eta nola gaurko artista asko bezala hodei metafisikoz inguraturik bizi den.

Oteizari buruz ari delarik, azpimarratzen du Oteizak idatzi izan duela Arteak ez duela ezer irakasten, arterako behar dela irakatsia eta edukatua egon, baina ez duela argitzen inoiz zein balore, sinismen eta printzipioen arabera. Gizonaren sendatzea beharko lukeela izan helburutzat, baina galdetu beharko litzaiokeela gaurko artistek zerikusirik baduten asmo eder horrekin. Bestetik, kritiko eta teorikoek beren entelekia kontzeptualak barreiatzen dituzten une berean, tratulariek salerosketak antolatzen dituztela, salmentek, diruak eta ospeak izanik garrantzia daukaten bakarrak...

"Aberri zantzutuaz" (EGUNKARIA, 1994-XI-6) artikuluan hitzaldi gisara beste titulu honekin "Aberriaren amets eder galdua" Hernanin 1994ean eman eta argitaratua separata moduan<sup>19</sup> bereizten saiatzen da, alde batetik nazionalismo politikoa, aski susmagarria eta desbideratua iruditzen zaiona, eta bestetik kulturaren abertzaletasuna. Ez du gogoko gaztetan abesten genuen gerla aurreko kanta hark zioena, *Nere aberri laztana / jausi zara herbestepean/ hobe beriotza da*, zeren eta nazionalismoak aurkakoak behar dituen bere pasioa elikatzeko, abertzaletasunak, aldiz, senideekin konparti dezakeen lurralde bat behar duela. Nolanahi dela ere, honelaxe dio bukaeran: *nik abertzale izaten jarraitu nahi dut*.

"Neguko gogoetak" (EGUNKARIA, 1995-II-5) artikulua ahanzturaren kontsolamenduarekin hasten zaigu, jarraitzen du solas gehiegiez mintzatzen, bere buruari kargu hartuz zergatik hainbeste eta hain *deszabazki* hitzegiten duen askotan, eta bukatzen du garai hartan gertatutako erahilketa mixerable batez, zeina hona dakargun zehatz-mehatz:

Gregorio Ordoñez zinegotziaren erahilketa hotza eta zikina izan da.

Zakur bat bezala pertsona bat akabatzeko argudio oso bortitza, oso

---

<sup>19</sup> "Aberriaren amets eder galdua", KM kulturunea, CA-26, F-7.

indartsuak behar dira. Pertsonaren bizitza hain merkea baldin bada, akabatu ditzagun arerioak, antagonistak, disidenteak. Eta gero, jakina, presta gaitezen gu ere akabatuak izatera, ez baitago inolako argudiorik gerla zikin batean arerioari (egiazkoa ala suposatua) giza eskubideak errespetatu ditzala eskatzeko.

Baina erahilketa hori politikoki errore izugarria izan da, gainera. Abertzale guziok psikologikoki iharrausi gaitu eta lotsa gorrira eramanez. Nola defenda genitzake posizio politiko batzuk, posizio politiko horien imajina publikoa hiltzaileek urrupatzen diguten unean? Zer abertzaletasunez ari dira mintzatzen aberria laidotzen duen pistolero uzkur eta anker horiek?

Aberria, gure guraso abertzale zaharrentzat beste zerbaitekin zen: duintasuna, eraikuntza, gizakiarekiko errespetua, herri baten sustrairik hoberenentarik sortuko ziren landareen zaintzea. Ordoñez erahil dutenek (eta Jainkoak daki ez nuela politikoki batere estimatzen) nere duintasun pertsonala eta abertzaletasuna zapaldu, laidotu eta lohitu dituzte. Horra hor egia guztiz garbia eta oso ximplea. Iraindu egin naute, eta hori ezin dut onartu. Hain zaila ote da konprenitzen ?

"Metafisikatik errukira" (EGUNKARIA, 1995-III-12) da azkeneko artikulua egunkari honetan eta ohi bezala bere iruditxoak ageri da lehenik Kultura orrialdean, gero izki handiz titulua eta marrak bat erdian. Oraingo Gaspar Montes Iturrioren *Jaizkibel Mendia* (1972) koadroaren erreproduzioa da: Hasten zaigu esanez Bakearen parafernaliatik ihes egiteko zenbait filosofo eta idazleren ideia batzuek aipatuko dituela. Hala, lehenik arketipoez mintzo da eta Platonez, uste duelarik honen asmakizun poetikoak errealitatea duplikatu eta biderkatu baizik ez duela egiten. Gero Leopardirengana jotzen du, hainbeste estimatzen zuena gure Migel Unamunok, *All'Italia* kantuaren hasierako bertsoak izugarri gustatzen

baitzitzazkion: *O patria mia, vedo le mure e gli archi / e le colonne e i simulacri e l'orme / torre degli avi nostri / ma la gloria non vedo.* Azkenik William Faulkner-en gizonaren definizio ezkorraz, *zakurkume gaixo madarikatuak*, bi hitz egiten ditu, ondorioztatzen duelarik pesimismoak bakarrik irakats diezagukeela apalak eta beharbada humanitarioak izaten.

Teresa Irastorzak idatzitako *Izendaezina* entseuari (Pamiela, 2008) *Gibel solasa* ezarri zion, eta bertan dio nola Tere Irastorzak arrazoi duen gogoetatuz sakonki Jainkoa izendaezina bezala, baina ez hori soilik, irudikaezina eta atxikiezina ere badela. Azpimarratzen du Rilke poetarekin behin eta berriz bat datorrela, eta nola Jainkoa honentzat beti haruntzago legokeen zerbait dela, *bazterreko salan edo leihoaren kanpoaldean...* Aipatzen dizkigu ere Jacques Derrida eta honen jarraitzaile deseraikitzaileak, hala nola Wittgensteinek esandakoa, *logikoki esan ezin denaz hobe dela isiltzea*, Koldo Mitxelenak bere modura aipatzen zuena aldaketatxo batekin, hots, ez dakigunaz hobe deus ez esatea, eta elukubrazio hutsaletan ez galtzea- Jose Azurmendi azken aldera aipatzen digu eta nola honek dioen agian Jainkoaren zantzu bat Gandiagaren poesian legokeela, edota Arantzazura erromes igotzen zirenengan, eta Letek eransten du, edo *Bachen musikan*.

Saiotxo erdi-soziologiko, erdi-filosofiko-teologiko guzti hauek Xabier Leteren jaidura nagusiak erakusten dizkigute, gizarteaz eta munduaz mendeetan zehar sortu diren pentsamolde ezberdinen joeretan sakontzeko ahalegina, zenbaitetan polemista pundua ageri delarik ere, eta hainbatetan kritiko zorrotza, prosa arin eta txit ulergarria erabiliz inolako arazorik gabe hitz berriak bereganatzeko eta maileguei euskal doinua emateko, herri xumeak egin ohi duen arabera, modu argian dibulgaziorako erakargarri egin dadin testua. Hitz gutitan esanda, kazetari trebe eta saiogile bikaina, bere solasak eta diskurtsoa hizkera bizi eta txit konprenigarrian moldatzen dituena.

## NARRAZIOAZ

Aurreko atalaren azterketatik, axalekoa izan arren pentsa dezakegu inongo dudarik gabe biografia liburuak eta filosofiakoak ere oso gogoko zituela, baina beraxek dioen bezala nobelak ere gustokoak zituen irakurtzea. Txillardegiren *Peru Leartzako* deskubrimendu garrantzitsua izan zela beretzat, hala nola geroxeago argitaratu zen Arestiren *Herri eta Herri*.

Liburu erreseinak egitea ere maite zuenez bere adiskide zen Anjel Lertxundiren “Goiko Kale” edo beste denbora galduaren billaketa” (ZA, 1973-XI-25) idatziko du. *Poema nobelatu* gisara har daitekeela dio, eta Julio Cortazar idazle hegoamerikarraren kutsua nabaritzen diola. Bestalde, aurreko hitz lauz argitaratu lanak komentatzen ditu, laburzki bada ere. *Hunik arrats artean*, gauza fresko, berri eta bitxia bezala. Geroago *Ajea du Urturik*, alegorikoegizat jotzen duena, eta lehengoaren umorerik gabe. Eta hirugarrengoaz, hau da, *Goiko Kale*-z gauza berdintsua azpimarratzen du, aholku orokor on bat ematen diolarik, *ez dedila ironiaz sekula abantz*. Noski, honek denetarako balio du, bai poesia bai entseia bai eta narratibarentzat.

Alde honetatik “Jon Miranderen umore beltzaren modelak” (ZA, 1975-II-9) euskal idazle paristarraren umore beltzaren ereduak, bere buruaz beste egin zuen Jon Miranderen irkaintzaren perla batzuek hautatzen dizkigu, *Gero* argitaletxeak Txomin Peillenen eskutik. Hona hemen lehena:

Bizar eginguan:

- Tomate saltsarik jan duzua egun?
- Ez. Zergatik.
- A! orduan, zintzurra moztu dizut...



Urteak aurrera egin eta Lertxundiren *Aise eman zenidan eskua* (Erein 1980) nobelaren kritika gaztelaniaz eman zuen Letek *Muga* aldizkarian (1980, 8. zkia, 126-128) eta honen kritikaren kritika idatzi zuen Mikel Hernández Abaituak sutzuki, amorruren amorruez titulu honekin: “Xabier Letek aise ematen dio jaboí Anjel Lertxundiri” (ZA, 1980-XI-23). Apologia iruditu baitzitzaion, *ezin aguantatzekoa da barne muinetan ematen duzun goragalea, sentitzen duzun biszeralismoa*. Iritziak iritzi, nabari da ez zituela garai hartan Mikelek oso gogoko Xabierren idazkiak ez eta Lertxundiren eleberria.

Bernardo Atxaga adiskidearen “Bi anai” nobelari buruz ere aurkitu dugu ohartxo eskuzkribatu bat Koldo Mitxelena kulturuneko liburutegian (KM, CA-37 F-25), 1984eko uztailaren 14ean idatzia. Testu mekanografiatuak 47 orrialde ditu, eta Xabierren oharrak hauxe dio:

Berak zioen “Azken-aurreko” erredakzioa zela. Baina gero nobela aski aldatua atera zen, batez ere hasierako kapituloetan. Neri hobe iruditu zitzaidan hemen dagoen bertsoa.

Nabari da, ikusiko dugun bezala, euskal narratibaz ez zuela asko idatzi eta gogoakogo izan zuela poesiaz jardun.

## POESIAZ

Niri nobelak asko gustatzen zaizkit., baita biografia intelektualak ere. Eta aldizka, poesia. Zenbait poesia, Aimátova, Paul Celan, arnasa moztzen dizu. Oso maiteak izan ditut katalanak: Carles Riba, Salvador Espriu, Josep Pla. Eta italiarrak: Cesare Pavese, Natalia Ginzburg, Primo Levi, Claudio Magris...

(Xabier Lete, *Abestitzak eta poema kantatuak*. Elkar, Donostia 2006, 190.)

Euskal bertso-gintzaren *berrehun urte* erreparasatu bazituen eta bere ahots urratu bereziaz kantatuz eman bazigun bertsoen munduaren panorama, argi dago idatzitako artikuluen mundura iraganez, batipat XX. mendeko poeta ezberdin guti batzuenak komentatu zituela, tartean bereak. Horrek ez du esan nahi kantaldietan ez zituela besterik abesten, hala nola 1545ean gure lehen poeta inprimatuaren, hau da Bernat Etxeparekoak moldaturiko *Contrapasa* eta *Sautrela*, adibidez, EITBko literatura eta arteko programa bati izena eman ziona.

Xabier Lizardiz behin baino gehiagotan mintzatu zaigu Lete, hala kanten aurkezpenetan nola aldizkari eta liburu ezberdinetan: "Xabier Lizardi poeta" (ZA, 1971-III-21); "Xabier Lizardi edo poesia gailen" (*Xabier Lizardi, olerkari eta prosista*. X. Lete, A. Zelaieta, A. Lertxundi. Jakin 1974, 13-43); "Lizardi: Lirikotasuna gehi kontzeptua" (HEGATS, 14. zkia, ekaina, 27-35). Aipatu lehen artikuluan hogeigarren mendeko lehen zatiaren euskaldun poetarik hoberentzat jotzen du, zeren eta orduko euskaldun poesiari zerion erromantizismo

negarti eta dekadentearen izpirik ere ez baitzaio ageri. Azpimarratzen du gero eta gehiago hunkitzen dutela *Urte-Giroak ene begitan* saileko *Ondar Gorri* poemaren zati hau, adibidez:

Berriro igo nauzu ene mendira,  
oroigarri zaarren maitea begira...  
Andre Lurra yaulki ditu igaliak;  
zurbil dauka aurpegia, itzal begiak...

Eta eransten du Lizardiren hizkuntza poetikoa, hizkuntza literario orokorra, sintetikoa, zehatza, espresiboa, neurtua eta populukeriekiko kontzesiorik gabea. Herrikoia, landua eta pertsonala, ahalik eta gehien osatua eta bateratua dela. Denok irakurri beharko genituzkeela haren poemak.

Bigarren artikulua Anjel Zelaia eta Anjel Lertxundirekin argitaratu liburu baten lehen parte osatzen du, eta hiru ataletan dago partitua: a) Poesi hizkuntzaren moldatzea; b) Natur-inpresionismoa, bizitza eta heriotzarekiko gogoeta; eta c) Asaba zaharren baratza. Lizardi gizon politizatu.

Hizkuntza bermoldatzeko ahaleginean eta ritmo-neurrira jarri nahiz batzutan bortxatu egiten duela hizkera, baina bortxakeria horiek maitasunezkoak direla, gramatikalki ez zuzenak izan arren jasankor direla bere neurrian. Baina sintetizatu nahi hori ez dela harrigarri, garaiko purismoaren eraginez, hizkera poetikoa ere zailtzea, beraz, irakurle kultu batentzat izatea nagusiki haren poemagintza. Eta honen mailarik gorengoena bizitzarekiko, naturarekiko maitasuna eta heriotzaren hurbiltasuna kontrastatuz lortu zuela. Lizardi poeta impresionista dela, Orixeren ikusmolde teologiko zaharkituarekin kontrajarriz, ia panteista. Bigarren atal honetan ere biltzen ditu gorago aipatu lehen artikuluko *Urte-Giroak* poema luzeari buruzko iruzkinak.

Hirugarren partean Lizardiren sentzibilidade berezia, sentzuala aipatzen digu, hala nola gaztedi aberriaren kontzientziadun haien, mendigoizale haien desioak: *Gazte-sail kementsua / goraño ba-dadi, izozpetik eguzkek / yare dik Euzkadi!* Tamalez, Lizardi gerra hasi baino hiru urte lehenago hil zen eta gudariak gerra galdu zuten.

Lizardiz aipatu hiru literatur kritikariek osatu 72ko liburutik 25 urte beranduago HEGATS aldizkarian (1997, 14. zkia) Lizardi eta modernitatea titulupean beren irizpideak eman zituzten Lurdes Otaegi irakasle eta koordinatzaileak, Bernardo Atxagak, Juan Mari Lekuona, eta Xabier Letek. Atxagak “Gure kultura ikustezin zenekoa” izendatu zuen, Lekuonak “Futurismoarekin ados egon zen poeta”, eta batipat artista eta pintoreen munduarekin izan zituen harremanak azpimarratu zituen, Lurdesen tesia<sup>20</sup> oinarri hartuz Xabier “Lizardi: lirikotasuna gehi kontzeptua”-z mintzatu zen eta Otaegik “Lizardi, Rimbaud etorri duk hitaz galdezka” mahai-ingurua zuzendu zuen laburbilduz esandakoak.

Karlos Otegi<sup>21</sup> ere tesia Lizardiren inguruan borobildu zuen eta azterketaren bukaeran, ondorioen artean esaten digu, nola poema liburuak iritzi eta kritika baikorrak jaso izan dituen, eta honetan arrazoi mota ezberdinekoak parte hartu dutela, batzuek politika mailakoak, euskalkiaren hobespenak, irudiarenetik ere datozenak, baina baita ere batzuetan bultzatzaile interesatuen laudorioak neurritz gaineakoak izan direla. Dena den, Lizardiren poesia, kontsiderazio eta balorapen interesatu hauetaz at, berez badituela balio espresibo eta semantiko garrantzitsuak: Hiztegi hauta, zentzu sinbolikoak, pertsonifikazioak, lirismoa, hizkeraren erabilera eliptikoak, bizitza nahiaren intentsitatea, Ni-aren benetazkotasuna eta

---

<sup>20</sup> Lurdes Otaegi, *Lizardiren poemagintzaren azterketa formal bat*. EHU, Gasteiz, 1982.

<sup>21</sup> Karlos Otegi, *Lizardi, Lectura semiótica de, Biotz-Begietan*, Donostia, ASJU 1993, 499.

beste, zeintzuk kontutan hartuta garaia eta euskal literaturaren egoera are baliotsuago izatea eramaten duten.

Gerraurreko poetarik hoberentsuenetakotzat ere kontsideratua izan da Nikolas Ormaetxea *Orixe*, zeinaz Letek “Orixeren poesiaz eta honen hizkuntzaz” (ZA, 1972-X-1) artikuluan dioen *Orixeri gorasarre ezarri arren, neri bere prosa ia poesi-hizkuntza baino gehiago gustatzen zait*. Hitz lauz, dio, orexarrak izugarri iskribatzen zuela, eta txikitatik bere euskera aberastu zuela *Urte guziko meza-bezperak* (Tours 1950) liburuarekin, bestei ere gertatu izan zaiguna. Dena den, bi poetika guztiz ezberdin erabili zituela hark bere poesiagintzan. Bat *Barne-muinetan* (1932) liburu tipian, eta bi *Euskaldunak* (1950) liburu handian. Biak garai berdintsuan idatziak, baina oso urte ezberdinetan, Zarautzko Itxaropena moldiztegian argitaratuak. Lehenean poeta erlijioso ageri da, eta bigarrean Euskal Herriko ikuspegi rurala, Santos Etxeberriaren irudiz horniturik eta hirurogei musika doinuen eranskinarekin.

Orixe eta Lizardi gipuzkoarren gerraurreko poeten hirurkoa Esteban Urkiaga “Lauaxeta” bizkaitarrak osatzen du, eta honen poemekin Antton Valverdek diska eder bat konposatu zuen, zeinaz Xabierrek honako iruzkina moldatu zuen: “Lauaxeta Valverderengan” (ZA, 1978-XI-19). Laburra da, baina zehatza erabat, eta sakona, honelaxe amaitzen dena: *Estilo baten zehazkera azken punturaino burutuz, Valverdek maitasunez eta bortxaz erditu baitu berriro Lauaxeta, poeta, musikaren edertasun liluragarri zantzirik*. Hemendik aurrera eta honen ondorioz, beraz, Lauaxeta lehen hurbiltze batean Valverderen ahotsean eta musikan agertuko zaiola publiko zabalari. Eta hala izan da.

Gerraondoko poetengana jauzi eginez lehenik Juan Mari Lekuona, Bitoriano Gandiaga eta Jon Miranderen poemagintzaz idatzitako iruzkinak aurkeztuko ditugu eta ondoren belaunaldi gazteagokoak diren Mikel Arregi, Koldo Izagirre, Martin Tejeria eta Antton Kazabonez moldatuak.

Kriselu argialetxeak Andolin Eguzkitzaren eskutik argitaratutako *Orboitu* (*Poema guztiak*) liburua “Jon Miranderen poemak” (ZA, 1976-V-23) artikuluan komentatzerakoan aipatzen digu Parisera emigraturiko xuberotarren seme zen idazle honek poema bitxi eta bakanak sortzen zituela, irudimen bero eta askedun baten jabe zela, eta horregatik asmatzen zituela magiadun mundu bitxi eta apartak, maitasun ohi-ezkoak, pagan-festa loriosoak, biraorik fin eta bortitzenak. Dena den poema hauen barne prozesua sakonki ezagutu nahiko lukeenak besteren artean nire lan hauetara jo dezake: *Gauex parke batean* (Ipuin bilduma, 1984); *Etsipenez* (Biografia nobelatua, 1984), *Jon Miranderen GUTUNAK (1948-1972)*. (1995, www.susa-literatura.com); *Jon Mirande orboitu* (1925-1972). *Antologia* (1997); edota “Jon Miranderen poesiaz iruzkinak” (*Hegats* 50, 2013, 31-56). Azken lantxo honetan Miranderen poesiak izan dituen edizio ezberdinez eta hauen xehetasunez mintzo naiz, hala nola moldatu zituen itzulpenez, gaiez, estiloaz, harreraz eta zabalkundeaz. Luze joko liguke hemen dena biltzea eta bego aipatua, besterik gabe.

Bitoriano Gandiaga fraide frantziskotarraren (Mendata 1928 -Arantzazu 2001) *Hiru Gizon Bakarka* poema liburuaz bi artikulua idatzi zituen: “Txakolin garratzaren bihotz beroa”, (ZA, 1973-XII-2); eta *Hiru gizon bakarka* (ZA, 1974-III-31). Lehena liburua argitaratu aurretik Euskaltzaindiak antolatzen zuen Eusebio Maria Azkue poesia sariketan irabazle atera zela eta egileak kazetariari oparitua, beraz, iruzkin behin-behineko bezala ematen du. Aipatzen digu ELORRI aurreko poemategia, hala nola Jorge Oteizarekin Arantzazun bien artean sortu zen adiskidetasuna. Nola eguneroko hizkuntza zelai, argi eta garbi bat poesia-hizkuntza izateraino landu duen. Halaber, imajinak ideien jantzizat erabiliz sinbolotza sakon batetan saiatu den, eta bere ustez lortu duen. Bigarren iruzkinean, goraiatzen du Oteizak margotutako irudia liburuaren azalerako, hala nola Mikel Lasaren hitzaurrea. Ematen dizkigu ere zenbait poemaren adibidetxoak eta iruzkinak honela bukatzeko:

Poetak, naturaren zentzu ia panteista batetaz, kosmogonia berezi bat osatzen du. [...] Poesi-liburu bikaina Gandiagarena. “Hiru gizon bakarka” liburu heldu bat da, puntu-puntura iritxi den poeta baten liburua. Guztiz naturalki, gauzak bere neurri zehatzean esaten dizkiguna. Poesi-liburu on bat.

Herritar, irakasle eta adiskide handi izan zuen Juan Mari Lekuonaz hiru lan aurkitu dizkiot, urte aski ezberdinetan sinatuak. Lehen Lekuonak *Muga beroak* argitaratu zueneko aitzin-solasa (Gero 1973). Hurrengo hark bere obra osoa euskaraz eta gaztelaniaz plazaratu zuenean (*Ibilaldia. Itinerario* (1950-1990) (EHU 1995), eta azkena hildakoan: “Juan Mari Lekuona, maisu eta lagun”, *Juan Mari Lekuona burbiletik (1927-2005)* (Oiertzun 2008, 17-33).

Aitzin-solasean hiru zati nagusiez mintzo da. HERENEGUN-ean lehen poemak biltzen dituela, eta Izadi-Abestian bezala beste zatitan, naturaren bitartez absolutoa zantzutu, nabaitu, somatu nahia oso biziki eta indartsu agertzen delarik. Bigarren partean, MINDURA GAUR deituan kezka sozialek eta herriaren egoerari buruzko azterketek hartzen dutela lekua. Eta hirugarrena HONDARREAN IDATZIA bikaina, euskal izkriburik hoberenetakoa kontsideratzen du. Lurra, sua, ura eta eguratsa guregan, materia gure baitan suposatzen duena, eta hitz laburrez bilduta, Lekuonaren liburuak neurri haundi batean gu guztion historia biltzen duen liburua dela.

Hogeitahiru urte geroago *Ibilaldia* (1950-1990) edizioan, non jasotzen den Juan Mariren obra poetiko osoa, gaztelaniazko itzulpenarekin eta hainbat ikerketekin batera datoz Xabierren iruzkinak. Laburbilduz dio bukaeraldean, bi ezaugarri nagusi dituela Lekuonaren poesiak. Bat zehatza dela, sobrako apaingarririk gabea, eta bi, oso pertsonala dela, modari, uneari edo inguruneari makurtzen ez dena. Ahots erabat pertsonala.

Azkeneko lantxoan (2008), Juan Mari maisu eta lagunarekiko harremanak kontatzen dizkigu oso modu xalo ete benetan iradokitsuan, interesgarri delarik azpimarratzea nola Letek

Lekuonatarren etxean aurkitu zuen lotura herria eta munduaren artean modu zabal eta maitagarrian:

Etxe hartan herri-jakintza baten adierazpen kultua nabari zitekeen, irakurketen bitartez kultura unibertsalago batean txertatua, eta niri nahasketa hark on handia egin zidan, han ohartu nintzelako berdin baliagarri eta erabilgarri zitezkeela euskera, nola latina, espainola, italiera eta frantsesa. Batek maite zitzakeela bertsolariak, bai, baina berdin Orixe, Fray Luis de Leon edo Georges Bernanos (Juan Mari Lekuonaren irakurgaietatik bat), norberaren nor izatea eta erregistroak gehiegi bortxatu gabe.

Bukaeraldean Bitorianori eta Juan Mariri bi adiskide eta poeta handiei otoitz antzeko bat zuzentzen die, *argi gaitzazue zuen izpirituaren begada arnastuak irabaziko zituen gailurretatik*.

Oiartzuar apaiza, poeta, lankide eta adiskideari buruz behin idatzi nuen ikerketa laburra irakur dezakezue ere HEGATS<sup>22</sup> aldizkarian, zeinaren bukaera honelaxekoa den:

Aspaldidanik, Juan Mari Lekuona lan bakar eta oso bat idazten ari zaigu. Bakarra, nahiz eta ezberdinak diren liburuak. Egitasmoaren muina eta mamia galdera honen erantzunean datza, alegia, ZER DEN GIZONA argitzen saiatzen den ikasbidean. Gizonari buruzko gogoetek betetzen dituzte beren aroak. Lehenik, gizona materia eta izpirituaren arteko dialektikan

---

<sup>22</sup> Patri Urkizu, "Juan Mari Lekuona, edertiaren bidetik gizonaren bila", HEGATS 6, Donostia 1992, 69-75.



agertzen zaigu. Gero materia, gorputz, gorpuzki bezala, baina soinaren bitartez hel diezaiokegularik arimaren komunikatze nahiari. Eta azkenik Barandiaranek eta Oteizak ideki urrats-esperientzia estetikoan ildotik dabilkigu bere poema trinko, bete eta borobilen bitartez; Edertiaren bidetik gizonaren bila.

Xabier Letek Mirande, Gandiaga eta Lekuonaren poesiagintzaz idazteaz at garaikideago eta gazteago ziren beste zenbait poetaren liburuez idatzi zuen hainbat erreseinak. Juan Mari Irigoien altzatarraz, Mikel Arregi aresoarraz, eta Koldo Izagirre altza-antxotarrak, Martin Tejeria errenteriarraz eta Antton Kazabon oiartzuarraz zioena ondoren laburbiltzen saiatuko gara.

Irun Saria irabazi zuen Juan Mari Irigoien *Hutsatik Esperantzara* poema liburuaz idatzitako erreseinan “Juan Mari Irigoien, edo gure iragan urbila” (ZA, 1975-V-18) esaten digu bertan ez dagoela erretorikarik, han ageri den guztia egilearen egia bizi-bizia dela; *eta gazte baten bizi-esperientzia gazteak literatura “gazte” baten itzaropenera garamatzila. Caracaseko dama beltzaren poemak, edo aitari eskainitako horrek, gazte izatearen indar guztia, filosofia guztia eta ausardigarbitasun guztia berengan daramate*. Poema honekin batera Iñaki Zubizarreta azpeitiarraren, *Heriotzaren eta bizitzaren mugetako ene hitzak*, izendaturiko poemez ez dio deus, baina bai Irigoien prosaz, eta laster honen nobela mardula *Gero* argitaletxean argitaratzear zela.

“Bi poeta gazte (Mikel Arregi eta Koldo Izagirre) (I-II)” (ZA, 1976-IV-4; 1976-V-2) iruzkinetarik lehenbizikoan kontatzen digu nola Arregi gure fantasma guztien berragertze eta berpizte bera den, eta alde batetik hunkituta eta bestetik harrিতuta utzi duen. Eta urte batzuek geroago Imanol kantariak abestuko zuen poema haren zatitxo bat ematen digu:

KIRIELEISON LUZEA

KANTU LEHOR ZATARRA

EGUZKIA BADOA TA

EGIN BEZA LANGARRA

Mikel Arregiren *Hego haizearen konpasean* liburuko poemak guztiz pertsonalak aurkitzen dituela eta transzendentziaz gero eta urrunagokoak, inmanentziari atxikiak.

Koldo Izagirrearen *itsaso abantzia* dela eta honen surrealismoarekiko kutsadura azpimarratzen du, poesia-hizkuntza berri baten aurrean gaudela, elisio eta inguru-  
mingurutasunez josiriko poesi estilo ausartaren aitzinean, baina amaierako hitzak txit  
gogorrak iruditzen zaizkit, agian 41 urte geroago Xabier Leteren bilduma editatzerakoan  
Koldori *Epilogo*a idaztera bultzatuko ziotenak. Hona dioena:

Inuzentzian bizi eta mundu zikin honetako bazterrak korritu nahi baditu, egin beza; baina inuzentzia poeta batek era bakar batean demostra  
lezake: bere poemetan. Poeta zikin asko garbitu da bere poesietan, baina  
zikintasunik gabeko poesiaren pretensioak haizeak eramaten ditu.

Izagirre poeta ona da. Izagirre poeta ona da, eta oso interesgarria, eta  
nik horrela esan edo ez esan berdin jarraituko du izaten. Baiña badago  
berarengan, poesiatik kanpora agian, retorizismo negarti baten zenbait joera.  
*El clan de los lapidados?*

Nik gauza bakar bat esan nahi nioke. Adiskide, iñor sekulan lapidatu  
ez duen harek bota beza lehen harria.

Eta beste gauza bat ere esan nahi nioke: penagarri da hain gazterik  
kulpabilidade konplejoak izatea, nabarmentzeko moduan beintzat.

Martin Tejeria irratigizonaren *Zer nahi batez* (1980) poema liburuari hitzaurrea idatzi zion Xabierrek, geroxeago agertu zena berriro (ZA, 1981-II-1) eta amaitzen dena esanez, esperantza handirik gabe baina letren kasketarekin jarraituko dugun azken azkenean nehork defini ez lezaken misterio apal eta bitxi den poesia egiten.

Azkenik Antton Kazabonen *Emozioen kuliskak* (2002) poemategiari ipinitako sarreraz mintzatuko gara laburzki. Nahiko laburra da, eta beste noizpait poesiaz eginiko gogoetetan<sup>23</sup> ere errepikatuko du, Platonen iritziak poetei buruz, eta nola greziarrek uste zuten batipat poetek bazeukatela barnean *daimon* bat. Eta poesiotan gutako bakoitzaren barruan adi-adi dautzala denok, — zuek, irakurle gazteok eta ni—, batzen gaituen gizatasun-egarriaren oihartzunak.

Honeraino iristen da beste euskal idazleei buruz Xabier Letek euskaraz egindako literatur kritiken, gogoeten errebasoaren laburbiltzea eta hurbilketaren entseia. Baditu beste zenbait gehiago euskaraz euskal literaturaz (Koldo Mitxelenaz eta Manuel Lekuonaz, baina une honetan hau adibidez ezin daiteke kontsulta katalogatze prozesuan baitaude KM-n) eta gaztelaniaz GARAIA aldizkarian argitaratuak (Pierre Topet Etchahunez, Xenpelarrez, Orixez, Ahozko tradizioari dagokionaz, Euskal kantaz, Gabriel Arestiz, eta bestez). Dena den orainartekoak hurbiltze gisara balio duela uste dut ikustearren zein kazetari eta literatur kritikari trebe, sakon eta argia den.

Bigarren eta azken partean Xabier Leteren poesiaz bai berak eta bai besteek idatzi dutena presentatzen saiatuko gara.

---

<sup>23</sup> Xabier Lete, *Poesiaz gogoeta bat*. Pamiela, Iruñea 2008.



**XABIER LETEREN POESIA**



Asko idatzi da Xabier Leteren poesiaz, eta anitzek idatzi dute oiartzuarraren poetikaz. Berak ere okasio ezberdinetan eman ditu argitara poemen zergatikakoak eta nondik norakoaz argibide aski. Hemen saiatuko gara lehenik modu kronologikoan, alegia, poema liburuak argitaratu zituen urteen arabera aztertzen, bai egin zituen itzulpenen mundua bai eta *leit-motiv*-en, gai nagusien mundua eta nolako harrera izan duen euskal gizartean kantariaren poesiagintzak utziz bukaerarako.

### **EGUNETIK EGUNERA ORDUEN GURPILLEAN.** Poemak. (1968) [EE]

Honakoxe titulua darama Xabier Letek argitaratutako lehen poema liburuak 1968an Itxaropena etxean editatuak. Azala Remigio Mendiburu (Bermeo 1924 – Hondarribi 2014) eskultore, irudigile eta zinemagileak moldatua du. Honek egin zituen zur enbor landuez euskal kosmogonia delako batzuek, baina mantentzen zuten haiek bere espresibitatea bilatzean holako borobiltasun ilun eta sakon bat zauriz betea. Oraingoan aldiz paper zurian beltz-gorri-horixtek elize moduko zerbait biltzen dute zutabe baten gainean, — su-gurpil edo eguzki-zuhaitz koloretsu bat, Koldo Izagirrereren<sup>24</sup> arabera —. Ehun eta hemezortzi orritan

---

<sup>24</sup> Koldo Izagirre (ed.), *Xabier Lete. Elurra ikusi dut*. Elkar, Donostia, 257. (Aurrerantzean KI)

badakar Juan San Martinen aitzin-solas labur bat eta ondoren bi zati. Lehengoak 12 poema ditu, Kantu sentimentalak barne, eta bigarrenak 22. Beraz, 34 poema orotara.

Lete ezaguna zen euskal munduan jadanik gorago aipatu dugunez, bere artikuluak zirela eta Zeruko Argian, baita teatro-gizon legez Lartaun eta Jarrai taldekoa bezala, hala nola herriz-herriz emandako bere kantaldien medioz. Halaber Juan San Martinek (Eibar 1922 – Hondarribi 2005) poeta (*Otsalar* ezizenez) eta entseugileak idatzi zuen “Lete ta Sarasola beste bi olerkari gazte gaurkotasunez beterik” (JAKIN, 1966, 22 zkia, 63-74) artikulua zela eta.

Honetan informatzen du eibartarrak nola Donostiako *Agora* poesia sariketan saritua izan den Letek idatzitako *Pekatu zaharrak eta sinismen berria* deitu poema bilduma. Gai sozialak jorratzen dituela bertan eta ematen ditu adibide batzuek, hala nola *Goseak gose ikusi ditut / zaxpi ijitu kalean...*; eta *Herri eroria, herri ezereza, / herri ahuldua...* gero liburuan jaso ez zituenak, baina bai adibidez **Poeta hoiek**, zeina Zeruko Argian argitaratua zuen (1966-XII-25), poemaren zatitxo hau: *Ai, poeta! Gogorra izango da / zuretzat / azken juijioeko eguna*. Liburuan aldatuko duelarik forma, lau bertsoleerro izan ordez zazpitan emanez, eta azken bertsoa *azken juijioeko eguna* dena lehen bertsoan aldatuz *Askatasun Eguna* sintagmaz.

**Egunsentian** deitu poema ere aldaketa zenbaitekin ageri zaigu.

Hona 66an zioena: ...*Zure bizitzan bakardadea / sentitzen dezun adiskide hori, / utsunea ustu, bakardadea bete / mugak zapaldu, / begiak argiz lilluratu, / bibotzaren samiñak aldendu / nabi dizkitzut.*

Eta hau 68ko argitarapenean: ...*Zure bizitzan bakardade / zabal / bat / sentitzen dezun adiskide hori / butsunea urratu / bakardadea bete / begiak argiz lilluratu... / bibotzetik samiña / burrundu nabi dizut.*

Ez da harrigarri, beraz, baizik eta ondorio arrunta *Oiartzunen, gauden urtean* bezala sinatzen duen lehen poeman adierazten baitu bere poetika, non kontsideratzen duen bere *poesi ikaskintza / zail eta kementsu baten / lehen pausoak dira*. Poemen erditzeak eskatzen diola



testuak luzatzea, laburtzea, ordenatzea, krisolean goritzea eta imajina mundua sortzea. Pena *mugak zapaldu* ez agertzea bigarren bertsioan.

Bazituen bederen beste bi poema agertuko ez zirenak *Egunetik egunera*...liburuan, adibidez **Gizonaren señaleara**, non Kristoren oinak amesten dituen Palestinan zehar eta bat egiten duen hark bezala gosea, hotza, gerra, tristura eta iluna pairatu duten gizon guztiekin. Eta **Vietnam**. Hau DANTZARI errebistan<sup>25</sup> agertu zen Lurdes Iriondo eta Xabier Lete gitarra jotzen ageri diren argazki batekin. Hiru estrofa ditu hogeitabertsolerrokoak hirurak eta bakoitzak estribilo hau dauka bukaeran: *Ez det maitatzen /Vietnam'go gerra, /Ez det maitatzen/ Gerra triste ura.*

J.I.-k 67an bigarren Agora saria irabazi ondoren egin zion elkarrizketan (ZA, 1967-VIII-13) berarentzat poesia zer ote zen galdetzen dionean, definizioa eta helburua ematen dio: *Poesia, nere ustez "terapeutika" bat da. Barrun aldeak garbitzeko metodo bat. Eta ez barrun aldeak bakarrik, baitere kanpokoak, emen gertatzen den bezela zikin xamarrak dagoztenean beintzat.* Halaberetsu kexu ageri da ez direlako sari horiek argitaratzen eta jendearenganatzten, eta horretan euskal burgesiak errurik badaukala (ez hala katalanak), ez duelako interesik euskal kultura ezagutarazteko. Horren ezean eta ordean, Xabier Lete Euskal Herrian zehar bere gitarra lagun kantu-kantari ibili zen.

KI-k bere edizioan beste hiru poema ematen ditu aitzindari gisara: **Bihar itxaropen,** **Gazte sentimental** eta **Euskalerrri nerea**. Lehenbiziko biak Benito Lertxundik kantatu zituen Cinsak 1967an argitaratu zuen diskan. Hirugarrena, aldiz, Xabierren lehen diskan ageri da lehen kanta gisa, **bihotz, lore gorrien balada, eta poeta hoiek** poemekin batera. Garbi dago gainera, hasiera Gabriel Arestiren bertso ezagun haiek dituela euskal moldez jatzten,

---

<sup>25</sup> DANTZARI, *Revue de l'association des danseurs du Pays Basque*. Baiona 1966, 4. zkia. 15.

*Euzkadi, madre mía, / no puedo quererte, / pues sólo me prometes / sufrimiento y muerte; zeinak honela bilakatzen diren euskaraz. Euskalerrri nerea ezin zaitu maite / baina non biziko naiz zuegandik aparte.*

**Lore gorrien balada** garai hartako gazte iraultzaileek, gorriek gustokoenetarikoa genuen eta maiz kantatzen genuen kaleetan zehar eta tabernaz-taberna. Bizkaiko ANAITASUNA aldizkarian ere zabaldu zen<sup>26</sup>. Hona zioena hirugarren ahapaldian, eliza eta jauntxoek arteko harremanak eta loturak salatuz: *Loreak zeinnek jarri zituen / elizako aldaretan, / nagusiak ekarritako / zillarrezko ontzietan? / Orain larrosik ez dut ikusten / Euskalerrriko kaleetan.*

Jose Luis Alvarez Enparanza “Txillardegí” (Donostia 1929 – 2012) hizkuntzalari, eleberrigile, politiko eta idazle ezagunak egin zuenean Xabierren liburuaren erreseina (ZA, 1968-IX-22) *Lete’ rengan ... olerkari “engagé” bat aurkitu dut*, diosku, eta bigarren partean batez ere *hizkera landuagoa, lerro-banaketa funtsezkoago, egokitasun haundiago eta artifizialkeriarik ez* [dio edireiten]. Horixe bera zioen Juan San Martinek aintzin-solasean, poemak landuagoak, muina eta azala hobeto egosiaz datozela.

KI-ren edizioan, akats zenbaitez jositako KRONOLOGIA hasi aurretik dio egileak *Eguneratu egin dugu hitzen morfologia, baina Leteren kutunak zirenak bere hartan utziñ*. Ikus dezagun hau noraino den zehatza eta egokia. Bihoa aurretik, nire irizpidea dela, eta filologoena ere bai, testuak eman behar direla ahalik eta egilearekiko errespeturik handienarekin, hau da honek idatzi zuenaren hizkerarekiko fidelitate osoz, eta egiten diren aldaerak desitxuratu egin dezaketela orijinala. Konprenigarriak izan arren XVI. mendeko autoreen eguneratzeak, — garaien arteko hizkuntza ezberdintasunak handiak direnean eta hauek ere errespetu ongi merezia eduki dezakete —, ikasle gazteentzat prestaturiko edizioetan, garaikide dugun Xabier

---

<sup>26</sup> ANAITASUNA 1968 (169 zkia). Hona bi estrofa: (1) Zelai ertzeko lore gorriak / neguak zapuztu ditu./ Neskatxaren ezpain eriak / zeinnek laztanduko ditu? / Gure herriko baratzak dira / lorerik gabe gelditu. (II) Udaberriko lili garbia, / gure lurrean eldua, / gaueko amets bat bezela / egunsentian galdua, / gizon dirudun baten etxean / ain gazterik usteldua.

Leteren poesiari hori egitea ez zait zilegi iruditzen. Azter dezagun adibidez *Egunetik Egunera*...ko KI-n ematen diren bi lehen poemak.

Saiatu da bildumagilea bertsoleerroak errespetatzen, irudi formala alegia, baina *gertatzen diran xazpi* bertsoleerroaren kasuan bat bezala eman du, orijinalean bi direnean: *gertatzen diran / xazpi*...Koerentzia bat eskatzen da noski hartutako erabakiekin.

Aldatu egin dira ere grafiak, hala: <x> > <s> (*trixtea* > *tristea*), <ñ> > <in> (*berdiñ* > *berdin*; *bizarlabaña* > *bizarlabaina*; *xikiñak* > *zikinak*); <Ø> > <h>: *itza* > *hitza*; *anka* > *hanka*; *naiç eta* > *nahiz eta*). Bustiduraren kasuan aldaketak onar daitezke ahoskatzerik ez baita aldatzen, edo ez litzateke aldatu behar bederen, baina zergatik *trixtea* ez eta *tristea* bai, prezizki intentsitatea adierazten duenean <x>ak, edo ez zuen kutuna Letek?

Baina ezin onar daitekeena da morfologia, hau da, izenak eta adizkerak aldatzea: *det* > *dut*; *neskatx hura* > *neskatxa hura*; — *eri* > — *ei*: *goikoeri* > *goikoei*; *bekoeri* > *behekoei*; *siñstuneri* > *sinistunei*...; *ideak* > *ideiak*; *Ondarrabi* > *Hondarribi*; *Naparroatik* > *Nafarroatik*... balizko batasun baten izenean edo, garaiko hizkeraren ezaugarriak kanbiatuz. Etabar, edota *et sic de caeteris*, latinezko esamoldezaleek lioketen eran, eta luzeegi joko ligukeenez poemak oro horrela xehetzea beude bi poemok adibide gisara.

Ez ote litzateke hobeto, zuzenago, bada, testua, egileak idatzi zuen bezala, *tel quel* uztea, inolako orrazkerarik, apainketarik gabe? Bestalde hizkuntza arazo hauek, duten garrantzia dutelarik, ez legoke ere gaizki azpimarratzea adibidez, herri kanten erabilera, hots, euskal poesiaren tradizioa lehen poeman jadanik: *maitia nun xira / nik etxaitut ikusten / norat galdu xira*” daukan oihartzun literario handiarekin?

Halaber Kronologian honakoa aipatzen da. Alegia, **Altzateko jauna** poeman hasten dela euskal izate prekristuaren baloreen errebindikazioa, *xein bilakatzen baita Harzabal*en poemagintzaren elementu inportanteenatatik bat (sic). Joxan Arze (Usurbil 1939-2018) poetaren lehen poema liburua *Isturitzetik Tolosan barru* (Egilea editore, 1969) garaian txunditurik utzi

gintuena dugu, baina Jon Mirandek idatzitako Andima Ibiñagabeitiari idatzitako gutunetarik<sup>27</sup> (1952-X-14) badakigu poeta paristarra Barandiaranen euskaldunen mitologia irakurriz, zoritxarrez hemen egiazko mitologiaren ondakinak motz eta urri direla ohartu zela eta *gure paganotarzunaren eraberritzeko: nai ala ez, atzerritik artu bearke dugu* zioela. Halaber geroxeago Jon Etxaideri idatzitako beste gutun batean *ni Baroja-zale amorratua nauzu*, dio. Eta adiskide berari Pelay Orozcoren *La ruta de Baroja-z* mintzo delarik beste batean (1963-VI-7) Baroja dela, azpimarratzen du, euskaldun erdal-idazleetan gauza zenbaitetan gogaide aurkitu duen bakarra. Aspaldixe (1952) zuen **Ortziren ttunttuna** poema Jokin Zaitegik *Euzko Gogoa* Guatemalako aldizkarian argitaratua eta ohikoa zuen Mirandek bere gutunak honako agurrarekin amaitzea: *Ortzi dautzula bizji on!* Ez da ahantzi behar *La leyenda de Jaun de Alzate*, Pio Barojak 1922. urtean plazaratu zuela, eta euskaldunen artean izan zela idazlerik irakurrienetakoa.

Xabier Lete bere buruaz mintzo zaigunean, hau da, bere poemagintza nahiko zorrozki kritikatzten duenean, batipat *Abestitzak eta poema kantatuak* liburuaren “Musika batzuk bizitzaren hitzei” hitzaurrean<sup>28</sup>, lehen abestiei dagokionez honakoa diosku, alegia, lehen abestien artean batzuek moralista xamarrak zirela, eta besteak existentzialistak deitzen diren horietakoak.

Juan San Martin aipatuak *Ubin berri* liburuan<sup>29</sup> biltzen dituenean 1964-1969ko hogeita bost olerkariren euskal poesiaren mostrak, besteen artean Gabriel Aresti, Jose Antonio Arze,

---

<sup>27</sup> Patri Urkizu (ed.), *Jon Miranderen Gutunak (1948 -1972)*. Susa, 1995, 63, 149, 215.

<sup>28</sup> Xabier Lete, *Abestitzak eta poema kantatuak*. Elkar, Donostia, 2006, 28.

<sup>29</sup> Juan San Martin (ed.), *Ubin berri. 1964-1969 bilduma*. Sociedad guipuzcoana de ediciones y publicaciones, Donostia 1969, 127-133.

Jose Azurmendi, Ramon Saizarbitoria, Ibon Sarasola... poetenak, Xabier Leteren **Bide ezkutua** eta **Asarre egon nahi nuke** hautatzen ditu, eta hitzaurrean hauxe zioen baikor, *inoiz izan baditu euskerak gizaldi berean poeta ugari eta onak gaur ditu.*

### UDAZKENEAN (1970)

Hernaniko sariketa berezi batera Xabierrek ...eriotzari..., ...maitasunari..., ...gizon eroriari... eskainiak hiru poema aurkeztu zituen: **Siñisten dut, Zure samurtasuna**, eta **Gizon eroria (Martin Luther King zenaren oroimenez)**. Iñaki Eizmendi “Basarri”-k, Antonio Zavalak, Juan Mari Lekuonak eta Juan Alkortak osatu zuten garaiko epai-mahaia 1971ko urtarrilaren hogeita hiruan *Premios Literarios Hernani 1970* deituak saritzeko eta aho batez, erabakitzen dute lehen saria, *conceder el 1º premio al trabajo*, aktak dioen bezala gaztelaniaz, Xabier Lete Bergaretxeren UDAZKENA, (Irutxo) izendatuari, aurrez agindutako diru saria eta argitarapena eman zitzaizolarik. Hiru poema aipatuok ale berezi batean argitaratu zituen Itxaropenak marrazki eder batekin azalean<sup>30</sup>. Eta bigarren poesia liburuan jaso zituenez, ondorengo lerroetan aztertuko ditugu.

---

<sup>30</sup> *Udazkenean*. Hernani 1971. KM kulturunea, CA-26 F-12.

## BIGARREN POEMA LIBURUA (1974) [BPL]

**Sinisten dut** poema, baturanzko joeraz aldaketa eta zuzenketa xume batzuekin (<h>-a ezarriz: *ilko* > hilen; *lagunean* > legunean; *frakotasunean* > freskotasunean...) hala nola bukaera ezberdinezko *zuhaitz bakarraren itzala* deitu zatiaren XXIII. poema izatera igaroko da. Amodiozko poema da bigarrena: **Zure xamurtasuna**. Ez da ahantzi behar 1968an ezkondu zela Lurdes Iriondo kontzertuetako kantari lankidearekin Izaskungo ermitatxoan, eta poema ugari hark inspiratu eta honek eskaini zizkiola. Eta hirugarrena: **Gizon eroria**, Martin Luther King-en asesinatzea gogoratuz moldatua. Memphis-en 1968ko apirilaren 4ean hil zuten Martin, pobreziaaren kontra, hiritar eskubideen alde, arrazismoaren eta Vietnamgo gerraren aurkako liderra.

Azala eta marrazkiak Sara Sotok (Gorliz 1941 – Irun 1999) eginak dituen bigarren poemategi honek orotara 64 poema ditu bilduak, gehi Anjel Letxundiren aitzin-solasa eta Xabier Lete beraren sarrera luzexa: *bitzak izaten jarri daitezela* (11-24. or.), non *In principium erat verbum* San Juanen ebanjelioaren oihartzuna aurki dezakegun *Hasieran, bakardade haundi bat zen*. Hiru zatitan banaturik daude poemak. Aipatu lehena (I-L), *poeta bat hilargian* (I-VIII) eta *itsaso eragotzia* (I-VI). Bertatik KI-k 30 poema jaso ditu bere bildumarako. Hauen artean NI NAIZ.

Bazen Donostian garai hartan literatur errebista bat KURPIL izenekoa (1973-76) Santiago Aizarna oiartuar idazleak zuzentzen zuena, eta bertan ageri dira Leteren BPL-ko hiru poema aldaketa zenbaitekin KURPILeko bigarren zenbakian<sup>31</sup> **Ez deusaren luma**

---

<sup>31</sup> KURPIL 2, Donostia 1973, 12; n° 3, 1975.

**beltzek** (51. or.), **Ezer / espero ez duenaren / itxaropen beltza** (61. or.), zeinak poesia hutsaren edo poesia puroaren aitzindariaren, Paul Valery poeta frantsesaren *Le cimetière marin* (1920) lehen sextetoa zekarren, baina bilakatuko dena bertsolerro bakarrean BPL-n, hau da, 28.ean: *Je hume ici ma future fumée*, — bidenabar esan dezagun *Itsas hilerria* osorik itzuli zuela Migel Anjel Unanuak HEGATS aldizkarian eta honela zehazki aipatu bertsolerroa: *Arnas zait nere hurren keadarra*<sup>32</sup>, eta KURPIL-en 3. zenbakian **Dena ohartzean zetzan** (65. or.) gaztelaniazko itzulpenarekin batera.

BPL-an Xabierren kantagintzan enblematikoak izan diren kantak ageri zaizkigu: **Nafarroa arragoa, Izarren hautsa**, eta **Ni naiz**. Esan dugu, Antton Valverderen hitzak jasoz, nola gustatzen zitzaion kanta emanaldiak hastea azken poema horrekin. Bestalde lehen liburuko **Euskalerra nerea**, eta bigarrenko **Nafarroa, arragoa abesti aberkoiak** deitzen ditu Letek berak, alegia, kanta patriotikoak. Etsipenez betetakoa lehena, malenkoniak, *Eusko Gudariak* abestiaren doinuz hasten dena, eta beraz galtzaileen abestia. Jakina da, Xabierren aita gudari izan zela gerran, eta hau bukatutakoan kartzela pairatu behar izan zuela. Bigarrena, eglogatzat jotzen duena, Monreal eta Idozin inguruko bazterretan zehar 1971ko udazkenean autoz Lurdesekin zihoala hego-haizeak eta makal horixten lerrokadek inspiratua da.

**Izarren hautsa** poemari dagokionez Xabierrek aitortzen digu idatzi eta hogeita hamar urte geroago ausarta izan zela entseiu hartan, materialismo dialektikoa sartu nahi izatean, laburbildu nahian poema batean. Materiaren bilakaera izango litzatekeela historiaren eta gizatasunaren gauzapenerunzko joera, garaiko anbizio intelektualaren adierazle. Poema honi buruzko azterketa sakona egina du Lurdes Otaegi literatur kritikariak<sup>33</sup>.

---

<sup>32</sup> HEGATS 3, Donostia 1990, 93.

<sup>33</sup> Lurdes Otaegi, “Xabier Lete: Izarren hautsa”. Donostia, EGAN 2004-2, 71-78.

Letek liburu honetan aipatzen dituen poeta eta artisten artean badira inspiratzen dutenak bereziki: euskaldunak (Bernat Etxepare, — *baina dardoa ematurik zauri ere sendoturik...* —, Lizardi, Bitoriano Gandiaga — *Baina haritzak ditu / motozerrak baino...* —, Emeterio Arrese, eta Gorka Knör kantaria, — *gure ortuan sagarra loran / Donibaneko heldurik* —); gaztelaniazkoak (Gonzalo de Berceo, — *Daban olor soveio las flores bien olientes* —; Miguel de Cervantes, *Vive Dios que me espanta esta grandeza...*; Espronceda, Miguel de Unamuno, — *Desarrazoizko ametsen Quijote berria* —, Federico García Lorca, — *eż / guk ere eż dugu / inoiz Granada ikusi* —; Juan Ramón Jimenez, — *Juan Ramon eskisitoak / prosa poetikoa idazten zuen / guk doi-doia / poesia prosaikoa idazten dugu* —); eta bestelakoak (Leopold Blum, Althusser, Mozart, Lord Byron, Baudelaire, Lautréamont...). Batzuetan barne-bakarrizketaren automatismoaren eta surrealismoren ildotik abiatzen dela dirudielarik.

Elizkizunen eragina eta latinaren oihartzunak ere nabarmen ageri zaizkigu, adibidez, lehen zatiko V poeman tartekatuz honako esaldiak, — *kyrie eleison, credo in unum Deum, et cum spiritu tuo, vere dignum et justum est, sanctificetur nomen tuum, non morietur in aeternum, et cum spiritu tuo...* —, eta Mezaren asperdurak parodiatuz, antza.

Bigarren liburua bezala 1974ean bigarren diskoa plazaratzen du bederatzi kanta hauekin: *Ni naiç*, *Nafarroa arragoa*, *Ondar gorri* (Lizardi), *Sinisten dut*, *Altzateko jauna*, *Izotz ondoko eguzki* (Lizardi), *Giza aberea*, *Seaska kanta*, eta *kontrapas* (Bernat Etxepare).

NI NAIZ poema aztertzerakoan Pantxika Noblia hendaiarrak<sup>34</sup> poeta existentzialista kausitzen du, umiltasuna agerian uzten duela, arima minberak sortzen dituen gogoetak espresatuz. Lehen zatian, berehala poeta ameslari eta idealista dela somatzen du: “... *erreka zikinen iturri garbiak*» bertsolerroan aldarrikapen ekologiko baina batez ere bizian beharrezko

---

<sup>34</sup> Pantxika Noblia, *Xabier Lete (I-IV): Poeta existentzialista, Poeta engaiatua, Poeta panteista eta Poeta mistikoa*. (Argitaragabea).



den jarrera moralaren oihartzuna baita ere. Gizonaren bakardadea negu gorrian «...*neguko ... gizon bakartia*», eta «...*historik gabe ... ardaska lehorra*» ilusioak galtzen ari den pertsonaiaren metafora. Errepikak askatasun bat sortzen duela, eta *crescendo* batean denboraren poderioz gauzak aldatzen doazela (dena beti aldatzen den bezala uneoro) eta hemen Léo Ferré-ren *avec le temps / avec le temps, va, tout s'en va ...* gogora erakartzen dio.

Nola bigarren zatian ildo beretik jarraitzen duen: «...*burrukaren erdian ilunpetan ...pizti beldurtia*» sentitzen dela eta hemen ere bere apaltasuna nabari dela, aitortuz ez dela heroia, ilunpetan (sinismen nahasiak), borrokarekin izutua, «... *ezin aurkitutako amets urrutia* « bere helburu idealizatua ezin lortuz bizi dela, eta « ...*gaztetasun hondarrak galtzen dituen* « ilusioak galtzen eta urteak pasatzen direla. «... *gogor astintzen dituen lainoen negarra*» naturaren egoera latza, lainoen negarra, berriro irudi metaforiko eder bat aurkituz.

Hirugarren zatian, berriz, «...*xori ...lurtasun zabarrari, loturik dadukan katea*» jendearen sufrimendua, askatasun ukatua, bizitzeko zailtasunak adierazten ditu, eta «...*beste asko bezala hotzez hiltzen...gizon bakartia*» bakardadea, hotza, munduan den jende xumeari luzatua, karrikan hiltzen den jendea salatuz. Abesti baten konposaketaren erara, berriro aipatzen ditu lehen zatiko *ardaska lehorra* (oraingoan lorerik gabe), *pasio guztiak kiskali* nahia.

Laburbilduz Pantxika Nobliak **Ni naiz** poema liriko eta humanistatzat jotzen du. Bertso librean idatzia, sinbolismo eta metafora ugarirekin, musikaltasunez betea. Xabier Lete poetaren barnetasuna bere argi ilunekin hurbilago ezagutzeko parada.

## NI NAIZ

[A1]

Ni naiz

erreka zikinen iturri garbiak

aurkitu nahi dituen poeta triste.

Ni naiz  
kaleetan zehar neguko eguzkitan  
lanera dihoan gizon bakartia.

Ni naiz  
hostorik gabe  
gelditzen ari den ardaska lehorra,  
ni naiz pasio zahar guztiak  
kiskali nahi dituen bihotz iheskorra.

[B] Ez zaidazu galdetu gauza ilun guztien  
arrazoi gordeaz,  
denbora aldakorrak  
atsedenikan gabe daraman bideaz.

[A2] Ni naiz  
burrukaren erdian ilunpetan etsita  
amur ematen duen pizti beldurtia.  
Ni naiz ezerezetik ihes  
munduaren erdian  
ezin aurkitutako amets urrutia.  
Ni naiz irrifar bakoitzean  
gaztetasun hondarrak galtzen dituen,  
ni naiz itsasoko haizeak  
gogor astintzen dituen lainoen negarra.

[B]

[A3] Ni naiz  
xori hegalaria bat lurtasun zabarrari

etsipenez loturik dadukan katea.

Ni naiz

beste asko bezela neguko eguzkitan

hotzez hiltzen dagoen gizon bakartia.

Ni naiz lorarik gabe

gelditzen ari den ardaska lehorra,

ni naiz pasio zahar guztiak

kiskali nahi dituen bihotz iheskorra.

[B]

Duela gutxi, (2017-XII-20) KM kulturunean Xabier Leteren poemagintzaz Koldo Izagirrek hitzaldia eman ondoren eta hainbat poemaren irakurraldia bukatutakoan, entzuleen artean zegoen Frantxis Landatxek, KM liburutegiko zuzendari ohiak, galdetu zion ea zertan zetzan argitaraberria zuen *Elurra egin du* bildumako epilogoan azpimarratzen zen Xabier Leteren plajioen kontua.

Koldok erantzun zuen ez zuela horretaz mintzatu nahi. Bestalde bera ez zela *genetista*. Literatur kritika genetikoaren zale, alegia, literatur testuen aurretestuak, eta materialak, zirriborroak bereziki aztergai duen korrontea nahiko zuen esan. Aipatu zuen ere *Oulipo* taldekoak, alegia, OU (*Ouvroir*), LI (*Littérature*), PO (*Potentiel*) sortu litekeen literaturaz mintzo direnak, artean Raymond Queneau, eta hauek esan ohi dutela Sofoklesek Freud kopiatu zuela. Adarjotze umoretsua, noski. Beraz, alderantzizko jira ematen diotela arduratzen direnei iturriak (nondik kritika *hidraulika* ere aipatu izan den) ikertzen, testuen nondik norakoak arakatzen.

Eransten zuen Koldok, nola bazuten Xabier Letek (Oiartzun 1944) eta Mikel Arregik (Areso 1948) poema bat titulu berarekin. NI NAIZ. Eta Leterena 74ean argitaratua izan arren

eta Arregirena 75ean plazaratua, gerta zitekeela Arregirena lehenagokoa izatea, zeren eta biak Juan Mari Lekuonaren adiskideak izanik, utzi ziezaizkiokkeen Mikelek Juan Mariri poemak azter zitzan eta gero honek Xabierri, eta hauek inspirazio iturri izan Leterentzat.

Leteri orain galdetzea ezina zaigunez, komentatu nion Arregiri eta honek apalki esan zidan norbaitek eraginik izatekotan beraxe izango zela, zeren gazte garaietan Xabierren kantik, beste askok bezala buruz zekizkiela osoki. Dena den, parekatu nahi izan ditut bi poemak eta ohartu naiz tituluaz aparte, ia deus ez dutela berdinek. Gogoetak eta barne erritmoa, ahapaldien egitura guztiz ezberdinak direla.

Xehetu eta zehaztu ditzagun. Leteren poemaren egitura hau litzateke: *Egitura: A1 + B + A2 + B + A3 + B*.

A1ek hamaika bertsoerrot dauzka, eta *ni nai*z hiru aldiz errepikatzen da, honela ematen duelarik bere izatearen adierazpena: *poeta triste*a, *gizon bakartia*, eta *bibotz ibeskorra*. Ni-aren ondoren hiru aldiz agertuko den lau bertsoerrodun estribiloa dator Zu-a agertzen delarik, eta poetaren bakarrizketatik elkarrizketara igarotzen delarik.

A2ak hamar bertsoerrot dauzka eta hemen Ni-aren definizioak beste hauek dira: *pi*zti bildurtia, *amets urrutia*, (*Gaztetasun galtzailea*), eta *lainoen negarra*.

Eta A3an, beste hamar bertsoerrotan, definizioak honakoxeak dira: *xori begalari*, *gizon bakartia*, *ardaska lehorra*, eta *bibotz ibeskorra*.

Beraz lehen bertso multzoaren bi definizio errepikatzen dira hirugarren multzoan: *gizon bakartia* eta *bibotz ibeskorra*. Eta nabarmenki azpimarratzen den egoera **Bakardadearena** da.

Ni-a bakarrik ageri da mundu desatsegin baten aitzinean, naturaren *erreka(k) zikinak* daude eta *ardaska(k) lehorra(k)*. Gainera poeta triste eta bakartiak ez daki nondik nora dihoan mundua eta zein datekeen existentziaren norabidea.

Garbi dago poema errepikakorra dela (hamaika aldiz errepikatzen da *NI naiξ*, eta ondoren maiztasunari begira bi aldiz datoz, *bakartia* eta *ibeskorra* izenlagunak, nahiko adierazgarri direnak, beraz, barne erritmoa eta doinua markatzen dutenak. Dena den adierazle nagusia, giltza, *Ni naiξ* dela nabarmen da, eta irakurtzerakoan oraindik buruan dauzkagula kantaren notak, doinu erakargarria, Xabier Lete gaztearen ahots urratuaren ezinegona, nahia eta ezina, bizitzari eta gizarteari irtenbiderik aurkitu ezinik dabilena, goizean goiz lanera dihoan langilearen kezka eta erantzunik gabeko galderen oihartzuna.

Irudi formalari dagokionez azpimarratu behar dut guztiz ezberdina dela baimena eskatzera aurkezten denean agintarien aurrean, honakoa baita:

*Ni naiξ erreka zikiñen iturri garbiak*

*Aurkitu nabi dituen poeta triste...*

Gaztelaniaz: *Yo soy un triste poeta que quisiera encontrar*

*Las fuentes limpias de los ríos ensuciados...*<sup>35</sup>

Harrera teoriari erreparatzen badiogu, hau da, zein nolako zabalkundea eta eragina aztertzen hasiz gero esan daiteke Xabierren kantagintza eta diskak, batez ere lehen garaikoak aski hedatuak izan badira, bere poesiak ez duela oihartzun haundirik izan belaunaldi berrietan, dena den gai hau oraindik aztertzeke dagoela esango nuke.

---

<sup>35</sup> Letras de canciones recopiladas por A. Valverde y autorizadas por la Dirección General de Teatro y espectáculos de la Sección de Circo y Variedades del Ministerio de Información y Turismo. (KM, CA-36 F-3). *Autorizado*, dio zigiluaz datorren testu orrialdeak.

## NI NAIZ<sup>36</sup>

Leteren bertsoetan zehar *poeta tristea, gizon bakartia, piñti beldurtia*, gisa definitzen bada Arregirenetan, *pasako hegaztia*, eta *Nafarroako pagadi haundien erdian jarritako pinu bakartia* agertuko da. Existenzialismoak kutsatuak daude biak, eta bizi izan zituzten garaiak latz, odoltsu eta gogorak izan ziren. Bestalde, biak ziren herri txiki bateko semeak, bizitzen ari zirenak frankismoaren azkeneko urteetan.

Zein poesia iturritik edan zuten biek denbora honetan?

Xabier Letez mintzatu gara lehenago zertxobait. Bestalde, Mikel Arregi, lau urte gazteago zen eta Donostiako Seminarioan ikasten aritu zen Filosofia bukatu arte. Irten eta gero Magisterioko titulua eta Filosofia eta Letretako sailean Filologia Erromanikoan lizentziatura lortu zuen. Euskarazko irakasle izan da, bai EUTG-n bai Gipuzkoako Instituto ezberdinetan. 1971ean argitaratu zen *Euskaldunen alfabetatzea / 1. Lehen urratsak* liburuan egilea da, hala nola Imanol Larzabalen kanta anitzen hitzena.

Nire galdera hauxe duzue: Ba al dago arrazoi poetikorik aski, alegia, bi poemen hizkuntza aztertuz hala nola bertan ageri den iruditeria eta metaforak mintzatzen hasteko plajioaz?

---

<sup>36</sup> *ni naiç / denboraren errotak / egun triste batean / jalkitako alea. / ni naiç / orduen pasadizoan / xebetuz ta xebetuz / noan bizitza alea. / ni naiç / minutuen alikate / tartean harrapatuta / ezin ibesi joanik / itximurkatua. / ni naiç / egun kalbariotsuen ordu etengabeen / minutu laburren / itsaso misteriotsuan / zehar nabilena. / ni naiç / bizitzaren lurretik / nora-ezeko bidean / lana ibeskorren antzera / gebiago itzuliko ez den / pasako hegaztia. / ni naiç / desertuetako lur / erre arrailatuetan / ezkurren baten bila / pausatzen naiçena. / ni naiç / Nafarroako pagadi haundien / erdian jarritako / pinu bakartia. (Mikel ARREGI, *Hego haizearen konpasean*. Kriselu, Donostia, 1975, 91-92:)*

Ezezkoa emango nioke nik, heziketa aski ezberdina izan zutelako biak, Juan Mari Lekuonaren maisutza eta laguntza biak izan arren, bai eta bizitza ibilbide guztiz ezberdinak. Bat kantari ezaguna, publiko ezberdin askoren aurrean aritua, ia poeta-kantari nazionala bezala kontsideratu izan dena une batez, eta bestea irakasle arrunta, isiltasuna eta anonimotasuna bilatzen saiatu dena, eta liburu bakarra argitaratu duena. Biengan etsipenaren ukitua, existentzialismoaren urratuak azaltzen dira nabarmen, baina modu aski ezberdinez adieraziak.

Juan Mari Lekuonak (ZA, 1974-XII-14) adiskideari egin zion bigarren poema liburuaren komentarioa honela bukatzen zuen hirugarren parteaz:

Bere laburrean zati hau da, neretzat unkiagarriena. Ez dionagatik bakarrik. Batez ere poema berrien esperantza dakarkidalako. “Begirada / haundi sarkorrak” ikusi du “oinazea tantoka / kristaletan lanbroa bezala”, eta olerkariak sentitu du “aragiaren dardara kunplieziñetan”. Eta “eziñak / oparotasunean jarraituko du”. Eta nahimenetan doakio bihotza: “Lur erre hau baino haratago / aurkitu nahi zintuzket...”. Harrigarria benetan Xabierren hizkuntza poetikoak, zer gaiñak hartu dituen hitz hutsez egin behartako ederlandintzan.

Eta halaxe da hizkuntza poetikoak une batzuetan, ez beti, gailurra lortzen du, eta *oinazea tantoka* ... poemaren kasuan bezala lagundurik doanean Antton Valverderen ahotsez eta musikaz benetan hunkigarri gertatzen zaigu. Urte ona benetan 1974koa euskal poesiarentzat Xabier Letek, Joxan Artzek eta Bitoriano Gandiagak hirusta ederra eskaini baitziguten.

Xabier Leteren poemak, bai EE-koak bai BLP-koak zabaltzen eta ezagutzen joan ziren errebista ezberdinetan Euskal Herrian barrena, eta **Ez dok amairu** 1972an desegin zenez geroztik, neurri batean erretiratu egin zela plazetatik esan badaiteke parte hartu zuen okasio berezitan jaialdian eta liburu kolektiboetan.

Hala 1976ko martxoaren 27an Donostian **24 orduak euskaraz** egin zen Jaialdian, nola Gernikako suntsiketa oroitzeko egin zen liburuan Gernika **77 Kontrakantua: Eguzki gorri bat...** poemaz, eta euskal poeta eta artista ezberdinek, Juan San Martinek koordinaturik Gabriel Arestiren omenez osatu zuten / genuen AGIRIAK<sup>37</sup> izeneko liburuan **Negu hotz batean...** bertsoekin.

Halaberetsu diska batzuek plazaratu zituen, bai bertso zaharren interpretazioarekin Julen Lekuona eta Antton Valverderen laguntzarekin, bai bere poema zahar berrituekin: *Xabier Lete* (1974), *Kantatzera noaztu* (1976), *Lore bat, zauri bat* (1978). Azken honetan entzun daitezke, adibidez: *Canço a Catalunya*, *Lore bat zauri bat*, *Teologia ideologia*, *Xalbadorren beriotzean* (I-II), *Haiçea dator Ifarraldetik*, *Gauaren ordezkoko eguna* eta *Herri zahar hontan*. Denak sentimendu sakon eta iradokitsuz jantziak, baina baita ere surrealismoz eta umorez ikutuak hala nola **Teologia ideologia** poemako laukote hau:

Adan badoa triste eta mutu paradisia galduta,  
Bilbo aldera ailegatzen da gaueko trena hartuta,  
Haurrak negarrez ikusten ditu, andrea haserretuta,  
Altos Hornosen pioi sartzen da kontratua firmatuta.

---

<sup>37</sup> Juan San Martin (ed.), *Agiriak. Euskal poetak eta artistak G. Arestiren omenez*. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, Donostia 1978, 151-152.



## URRATS DESBIDERATUAK (1981). [UD]

Titulu honen pean hogeita hamalau poema aurkeztu zituen Xabier Letek Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak Irunen 1980an antolatu norlehenkara eta irabazi zuelarik saria aitzin solas batez erantsirik argitaratu zuen.

Amaia Serranok<sup>38</sup> poemategi honetan kutsu ezkorra oso zabaldua aurkitzen duela, dio, eta KI-k hemen kantugileak eta poetak bat egin dutela, eta gerora eman zituen lanen giltzarria aurki daitekeela. Lete bera nahiko ezkor ageri zaigu *Obarra, aintzín-solas obi delakoaren gisan* sarrera hitzetan, *mila bider ederrago, hobeago eta borobilago nahiko nituzkeen*, dio, baina sariak argitaratzera behartzen zuen eta baldintzaturik zegoenez, zirugia aplikatu nahiko ziokeen arren bertso askori, borobilago bilaka zitezen azkenean zeudenean utzi zituen. Eta dena den, batzuek kalitatezkotzat jo zituen. Guk ere bai. Nork ez du gozatu *Habanera* kantaren doinu eta hitzekin, edota serioski gogoetatu *Heriotza utopi izendatu dutenei* iradoki ixtorio tristeekin? Bestalde, garbi dago poemak denboraren poderioz ardo ona bezalaxe osatzen, esanahi berriz betetzen eta aldatzen doazela, ederragotzen. Honela *Iragan denbora arrotzaren itzulera*, zeina baita bigarren poema, osatzen doana bederatzigarrenarekin, hots, **Habanera**-ren lehen bertsioarekin, *Nik ez nuen izan / Cuban gerra egintako aitonik, [...] tabaco y caña / canela y ron / lindas Antillas / de mi querer* honela gelditzeko bigarren **Habanera**-n:

Berriro itzuliko balitz iragan denbora arrotza

[...] Osaba komertziantik ez nuen izan Habanan.

---

<sup>38</sup> Amaia Serrano, Lete Xabier (Oiartzun, 1944 – Donostia 2010). [www.ehu.eus](http://www.ehu.eus) / ehg / literatura / idazleak.

[...] Tabako, ron eta kanelaz sukartutako ametsetan

Algarak entzuten ziren Habanako putetxetan. ...[KI, 180]

*Heriotza utopi izendatu dutenei* poemari Izagirrek beste hamar poema ezberdinekin berdintasun semantiko eta formalak somatu dizkio eta hauen zerrenda eman du antologia *dialektiko* bat proposatu nahiz. *Lagunok*, deiki desesperatuarekin zentzutasunera, bide zuzenera erakarri nahi lituzke hautatu dutenak eraiketen bidea. Benetan, karraxi lazgarria da, oihu garratza baina tamalez basamortuan jaulki bailitzan zekusan, zeren ez baitzuen inolako zantzurik ikusten esperantzarako. Halaber UD-ko hogeigarren poemaren *Esku izoztuak* 2008ko bildumaren bigarren parte osatuko du: *Egunsentiaren esku izoztuak*, liburuaren tituluarena, alegia.

Idazle klasikoen oihartzuna ere nabarmena izango da zenbaitetan, hala, **Ilion**, Homeroren Iliadarena, (*Greko zaharrek abiatu izan banintzen / Ilion ederraren arrokeria deuseztera...*), edota **Dante Alighieri Ravenna-n** ere ez (*Ravenna-ko kaletan / zurbil, mebe ta luze / arratsalde geldian / Dante zualarik...*) honen azken mementoak Firenzen barrena kaleetan zehar ikusten duela itsasotik datorkioken haizearen bailakua edota loreen usaina barne musikaz batera dastatzen irudikatzen duela.

Eta **Epilogo**a-n bergogoetatzen duen bezala, ez zeukakeen negu ilun eta gris hartan esperantzarentzat lekurik, kanposantuak erahilez betetzen ari zirelarik, zeren eta *azkenean gogoetak hilerri zeterik daude / gurutzeko erdoiltu, belartzar eta sasi z.*

## ZENTZU ANTZALDATUEN POEMATEGIA (1992) [ZAP]

### BIZIAREN IKURRAK (1992) [BI]

Hamaika urte luze igaro ziren, are luzeagoak egin zitzaizkionak eritasun gaizto batek harrapatu zuenetik heriotze mugaraino gehiago ez aske uzteko, laugarren eta bostgarren poema liburuak aurkeztu bitartean. Urte hauetan, ordea, ez zen beso gurutzaturik deus egin gabe gelditu, zeren bere irakurketekin eta idazkiekin jarraitu baitzuen etengabe. Izan zuen, baita ere, une bat politika ofizialari dedikatua, Imanol Murua Gipuzkoako Foru Aldun Nagusiak eskatuta Kultura zuzendari izan baitzen EAJ-k gobernatutako Diputazioan 1983an eta sailburu 1985ean, eta hau ez izan arren oso gustoko lana, asebetetzen zuena, emaitza ederrik ere lortu zuen, hala nola Koldo Mitxelena Kulturunea. Euskal Kultura eta liburugintza aberatsen eta interesgarrien daukan gunea, Julio Urkixoren biblioteka miresgarria bertan baitago, Donostiako erdi-erdian katedralaren ondoan kokatua.

Euskaltzaindiak 1991ean antolatutako Felipe Arrese y Beitia Poesia Saria irabazi zuen Xabierrek ZAP bezala laburtu dugun poemategiarekin. Epai-mahaikideak honakoak izan ziren: Bitoriano Gandiaga, Juan Mari Lekuona eta Mikel Lasa. Saria sei ehun mila pesetakoa. Euskaltzaindia-Bilbao Bizkaia Kutxak argitaratu zuen berrogeita bat poemaz osaturiko bilduma honetatik hogeitahamabi igaroko ziren *Erein* argitaletxeak *Biziaren ikurrak* plazaratu poemategira.

Gerardo Markuletak “Erromes nekatuaren salmoak” bezala titulatu zuen ZABALIK, *El Diario Vasco*-ren eranskian (1992-IX-9). Ez zitzaion batere arrazoirik falta kexu zenean Euskaltzaindiak kaleratu edizioak garai txarrean plazaratzen zirelako, banaketa kaxkarra zutelako eta Leopoldo Zugazak editatzeko harturiko ardurak porrot egiten zuelako, letra-tipo desegokia, txikiegia zela eta, saritutako beste kasuetan bezala. Editaletxe eta edizio prestatzaile

on batek ez zukeela pasatzen utziko hainbat anakronismo, eta Xabierren lehen garaiko *zera, gera, nun, itxu, itxas* eta horrelakoak zuzenduko zituzkeela, zeren eta *poema hauek tarte luzeetan idatziak ote diren somatzen du irakurleak*, dio Markuletak. Asko direla bizitza-laburpen gisara moldaturiko poemak eta poeta ospetsu batzuen oihartzunak nabarmen ageri direla. K. Cavafis, F. Brines, T.S. Elliot (VII, XII, XIII, XXX, XXXIV), eta bereziki beste herri tikietakoenak nola Salvador Espriu eta Carles Ribarenak (VIII, XVIII...). Jaungoiko kristauaren presentzia zabala ere ageri zaigula, eta Markuletaren iritziz, Leteren laugarren liburu hau, daukan ihardun poetiko luzearen eboluzioan egoki txertatzen dena da, interesgarri eta mamitsu.

Hiru hilabete geroago *Erein*-ek BI argitaratutakoan Durangoko azokaren salmenten bila Markuletak beste erreseinatxoia “Xabier Lete erromesaren otoitz liburu” idatziko du berriro ZABALIK-en (1992-XII-9). Honetan zehazten du oraingo poemategiak hirurogeita sei poema dauzkala bi multzotan banatuak: *Dobainen Liburua* deitu atalak 33 poema dakartzala eta beste hainbeste *Otoitzak* izendatuak. ZAP-eko gehienak, bederatzi ezik, igaro direlarik osatzera BI-ren bigarren parte. Eta ikusten du Markuletak, Carles Riba poetaren oihartzun oso argi eta nabarmenak, zenbaitetan *birkreazio direla*, baieztatu daitekeelarik. Iruditegia aberasten dutela, baina erritmoan irregulartasunek poemen borobiltasunari, beharko luketen trinkotasunari ez dietela laguntzen. Azpimarratzen du ere aurrekoan bezala Jainko kristauaren presentzia usaintzen dela, ia erabatekoa dela, poetak behin baino gehiagotan bere sinismen sakona aitortzen baitu. BI-ko hitzaurrean Xabier Letek dioena honakoxea da, hain zuzen:

Poesia, nere ustez otoitza eta akatamendua ere bada. Ordenu baten zentzuaren bilaketa, atxekigarrien behar larria, hutsuneen konstatazioa, harridura eta miresentzaren aitortza. Denek ez dute poesia horrela ulertzen jakina.

Heriotza eta Jainkoa gai nagusietakoak izango badira ere hemendik aurrera bere poesiagintzan nabari da nola maiz ematen dituen elizkizunetako hitzak, guztiz bereganatuak baititu egunerokotasunaren otoitzetan. Hala beste askoren artean: — *et verbum caro factum est, hitza haragi bilakatu zeneko armonia lehena* [BI, 17]—.

Bada beste gai nagusi bat ere, aberria. *Urrats desbideratuak* liburuan **Aberria, orain** poeman diren ideiak berriro hartzen ditu, hausnartzen eta aldatzen. Hona gogoeten aldaketek hartzen duten bidea bertsuotan

Eta aberria, orain

Lotsaldi eta erorka guzien izendapen zait:

[...] Horregatik natzaio agian leial aberri dohakabe honi. (UD, 77)

Bertsuek hamaika urte geroago **Aberriari, 3** poeman beste forma hau bereganatuko dute, Antonio Machadoren *no fue por estos campos el bíblico jardín* hitzak orri zuriaren goipartean emandakoan:

Aberria, berriro, lotsa makurraren izendapena zait,

[...] Nor izango zaio oraindik leial aberri dohakabe honi?

(ZAP, 26)

Lehen pertsonarengan duda, kezka ageri bada *natzaio agian leial* hitzetan bigarren poeman etsipenak jota dauka jadanik, eta bere ustez desilusio horrek hartuta dauzka gehienak, beraz, *nor izango zaio oraindik leial...?*

BI-ko bigarren partean 33. poeman **Egun batez argiz jantziko naiz** hasten denean Erdi Aro berantiarrean ahaide nagusien arteko peleetan 1464ean hil zuten Martín Bañes

Artazubiagaren eresiaren oihartzuna ere aurki dezakegu, [...] *Ez gara lur itsua izanen, / bizziaren zuzi iratxekia baizik.*<sup>39</sup>.

Xabier Mendigurenek<sup>40</sup> ZAP-ren erreseina egiterakoan komentatzen du nola idazlan gorenetan bezala badirudiela hitzak horrela eta ez beste inola behar zirela, eta hiztegiaren aldetik azpimarratzekoa dela lortu duen nabardura, iradokizun maila, aberastasuna ez delako garbitasun edo txukuntasun kontua, estetika propioa baizik.

Aski esanguratsutzat dauzkat ere Xabierren BI-ren hitzurreko azken hitzak, non aitortzen duen daukan zor handia fisikoki eta izpiritualki bizirik iraunarazi dutenekiko, bere anbiguotasunean zalantzak sortzen dizkigutelarik jakin nahian nortzu ote diren: *Zuen izen eta deiturak isilean uzten ditut, pudoreak eta omisio injustuen beldurrak horretara behartzen bainaute...*

#### **R.M. RILKE, ORDUEN LIBURUA / Itzultzaile X. LETE (2004)**

Rainer Maria Rilke (Praha 1875 – Valmont 1926) poeta alemanaren aurkezpen labur bat ematen digu diska-liburu honetan Letek. Nola Rilkeren gazte denboretan Prahan hiru kultur eta literatur hizkuntza erabiltzen ziren: jidishera, txekiera eta alemana. Azken hau zen eskoletan eta unibertsitatean gehien erabiltzen zena, eta hizkuntza honetan idatzi zuen Rilkek bere poesia gehiena, Frantz Kafka eta beste hainbat txekiarrek bezalaxe.

---

<sup>39</sup> “*artuko dot esku batean gezia / bestean zuzi iratsegia / erreko dot Aramaio guzia*”, Patri Urkizu (ed.), *Poesía Vasca. Antología bilingüe*. UNED, Madrid, 2009, 112.

<sup>40</sup> Xabier Mendiguren, “Carpe Diem”, ARGIA, 1992-IX-6.

Bakardade radikal baten bilatzeak bizitza ibiltari eta erraria eramatera bultzatu zuen Rilke, bere bizitza osoan mantendu zuelarik indibidualtasuna eta kosmopolitasuna. Parisen bizitu zen Rodin eskultorearen idazkari, baita ere beste leku anitzetan. *Orduen liburua* deituak Errusiara Lou Andreas-Salomé 1897an ezagutu eta Nietzsche-ren amodio platonikoa izan zen anderearekin 1899an eta 1900ean egindako bi bidaietan dauka iturburua. Hemengo monastegietako giroak, otoitzen atmosferak, Tolstoi idazlearen ezagutzak, San Petersburgoko eta Moskuko edertasunek, Errusiako paisaiek erabat liluratu zuten. Serioski hartu zuen errusieraren ikasketa eta poeta errusiar batzu itzultzeaz aparte, hizkuntza honetan zenbait poema ere idatzi zituen. Eta jakina den bezala arrakasta handia izan zuen *Das Stunden-Buch, Orduen Liburua*-k.

Liburu hau, Jainkoaz eta izadiak eta gizakumeaz eta hirietaz eta jende pobreaken bizitzaz mintzatzen dena, hogeigarren mende hasierako poesi-liburu garrantzitsuenetakoa bilakatu zen, [dio Letek]. Alde batetik, positibismoaren aurkako erreakzio bat suposatzen zuen, metafisikara itzultze bat alegia, mistizismo estetiko eta izpirituaren bilakaeraren ildotik...

Positibismoa eta razionalismoa krisian zirelarik gizatasunari sakratuarekiko bide berriak zabaltzen omen zizkion. Eta Rilkek zioen bezala Jainkoa hor zegoen *alboko gelan*, baina *beti izkutan*.

Hogeita bi poema itzultzen ditu Letek. Itzulpen, sorkuntza berriak dira, 6.a ezik, hau ZAP XIII-n ageri baita: **Nekarazten bazaitut, izpiritu, jainko hurbil**. Eta BI-n *jainko hurbil* ordez, *sugar hurbil* bezala. Baina azken bertzio honetan aski modu ezberdinean agertzen zaigu bukaera: *Eta nere zentzuek, baina abul gebienetan, / aberriak gabe zuegandik urruti, / argi haundi horretan murgildu nahi dute; zeina beste era hauetan bilakatzen den: eta nere zentzuak, azkarregi berriro abul,*

/ *zugandik urrunduak eta aberririk gabe daude*. Azken hau dirudi gertuago alemanezko orijinala eta Federico Bermúdez-Cañetek<sup>41</sup> eginiko bi bertsolerroekiko. Pamiela argitaletxeak 2001eko irailaren 22an Oiartzungo udaletxeko aretoan grabatu zuena plazaratu zuen.

Ez zen ordea Rilke erabat ezezaguna Euskal Herrian, zeren eta Santi Onaindiak, Luis Mari Muxikak, eta Juan San Martín “Otsalar”-ek itzuli eta argitaratuak zituzten zenbait poema OLERTI errebistan. Halaber, Anjel Lertxundik idatzita zuen artikulu txit interesgarria “Rilke poeta handiaren ehunurteburuan” (ZA, 1976-III-29) ia hogeita hamar urte lehenago.

Rilkek Europa bere aberritzat hartu zuen, — daniera ere ezagutzen zuen Sören Kierkegaard-ek neskari hizkuntza honetan idatzitako gutunak ere itzuli zituelarik. Frantsesa, errusiera eta italiara jadanik bazekizkien eginiko bidaietan ikasita, eta 1913an Andaluziatik ere igaro zenean gaztelaniaz arduratu zen, San Juan de la Cruz mistikoaz eta Unamunoz...—, baina Lehen Gerla Handiak aberrigabe bilakatzen du.

Pierre Klossowski literatur kritikariak dioskunez<sup>42</sup> Rilkeren poesia, Hölderlin eta Shelleyrena bezala itzulpenarentzat desafio bat direla, ia ezinezko, eta aipatu lehenaren gutunetan ageri diren erreferentziek sortzaurreko baldintzez mintzo dira eta meditazio bat poetaren egoeraz gizarte mundu modernoan.

---

<sup>41</sup> “Und meine Sinne, welche schell erlahment, / sind ohne Heimt und von dir getrennt”. “Y mis sentidos, que flojean pronto, / están de ti apartados y sin patria”. *Rainer Maria Rilke, El libro de horas (Das Stunden-Buch)*. Traducción y prólogo de Federico Bermúdez-Cañete. Edición Bilingüe. Poesía Hiperión. Madrid 2005, 26-27.

<sup>42</sup> Laffont-Bompiani, *Dictionnaire des auteurs de tous les temps et de tous les Pays*. IV. Great Britain 1989, 95.



## ABESTITZAK ETA POEMA KANTATUAK (2006) [APK]

Elkar argitaletxeak oso paper dotorean plazaratu zuen arrakasta handiz gainera, gauza nahiko bitxia dena poesia liburuentzat, bi edizio ezberdin azaroan lehena eta abendoan bigarrena, Xabier Letek *Zuri*, *Lurdes*, *gaueko ordu isiletatik*, dedikaturiko liburua.

Sarrerak, “Musika batzuk bizitzaren hitzei”, honako atalak ditu: a) Hastapenak, b) Hiru edo lau ahapalditan zerbait esan, c) Liburu honetako abestitzen sailkapena, eta d) Abestien barne kontakizuna. Aurrerago aztertuko dugu, bertan baitaude egilearen azterketa eta autoanalisia aski xeheki emanak. Hau ilustratzeko daude zenbait diskaren azalak, Lurdesen argazkia orrialde osoan, eta gero beste batean Xabier eta Lurdes gazte zirelarik, eta kantoietan beste musikari hauen fotografiak: Mikel Laboa, Antton Valverde, Imanol Larzabal, eta Benito Lertxundi.

Bildumak hiru sail ditu: a) Idazleak berak abestutakoak, hogeita hemeretzi kanten sorta; b) Beste abeslariak musikatu eta kantatutakoak, hogeita bat; c) Euskerara itzulitako abesti eta poemak, hogeita kanta. Orotara hirurogeita hemeretzi.

Bukatzeko bi elkarrizketa dakartza: Bat, Jose Arregi apaizak egin ziona (HEMEN, 4. zkia, 2004), eta bestea Lander Arbelaitzek 2006an egindako elkarrizketatik “hartutako printzak”.

Itzulitako poemen-kantarien zerrenda honakoxea dugu: Jacques Brel 10; George Brassens 3; Leonard Cohen 2; Lluís Llac 2; Gabriel Celaya 1, Cesare Pavese 1; Angelos Sikelianos 1. Nabarmen ikusten delarik, noski, Jacques Brel kantari belgiar frantsesari hoberenesten diola edo gogokoen, taldearen buruan baitoa hamar kantarekin.

Neurri batean, esan dezakegu, liburu honetan Xabier Letek bildu izan nahi zituela bere berrogei urteko musika eta poesia lanbidean sortutako lore xortarik ederrenak.

Badakarte ohar orokor bat, non esaten den abestien hitzak zenbaitetan orraztatuak eta aldatuak izan direla, eta hobekuntza asmoko aldaketok enbarazogariak izanik ere azken irakurketarako balio lutekenak direla. Nire ustez enbarazo ez, baina agian hobetsiko nituen lehen bertzioak, dena den balio dute ere buruz kantatzen ari zarelarik irakurtzen zarenarekin konparatzeko.

Xabier Lete berak abestutakoen kanten artean testu gehienak bereak dira, salbuespen hauekin: *Izotz ondoko eguzki*, eta *Ondar-gorri* zeinak Lizardirenak diren, eta *Bibotza* Federiko Krutwig-ena aldatuxea. Musikak, bai berak, bai Antton Valverdek, edota Karlos Jimenezek konposatuak.

Lurdes Iriondo, Benito Lertxundi, Jabier Muguruza, Imanol Larzabal, Peio eta Pantxo kantariak eta beste askok ere Xabierren hitzak abestu zituzten urteetan zehar. Bildumaren zati hau **Liu-Pan mendian** abestiarekin hasten da, zeina poema txinatar herrikoi batean oinarritzen den, itzulpena eta egokipena Xabierrek moldatuak eta Nafarroako kantu herrikoi baten oinarritua doinua.

Hau dela eta hona nire memorietatik<sup>43</sup> hartutako oroitzapen bat garai hartaz:

Mila bederatzirehun eta hirurogeita seiko urtarrilaren hogeita hiruan (1966-I-23), nire oroitzapenak ondo baldin badaude, Victoria Eugenia-ko aretoan Jaialdi bat ematen zuten eta hantxe Lurdex Iriondok kantatu ondoren Martxa Luzeari buruzko eta Liu-Pan mendiko kontua eta kantua, besteak beste, agertu zitzaigun On Nemesio sotana luze harekin *Baratzeko pikuak hiru txorten ditu*, eta *Kvai ibai gaineko zubia...* kantari. Dudarik gabe,

---

<sup>43</sup> Patri Urkizu, *Besteak eta neroni*. Memoria argitaragabeak.

ahots izugarririk ez izan arren grazia aparta zeukan apez moderno hark. Eta gertakizun honek beretzat ere nahiko interesa izango zuen nonbait, honelaxe aipatzen baitio Andima Ibiñagabeitiari idatzitako gutun batean:

Ilbeltzaren 23an, Donostiko VICTORIA EUGENIA Antzokian, zoragarrizko jaialdia izan genduan. Gure gazteak esnatu dira, gu ez aiña, ta or atera zaizkigu, teatro betearen aurrean gaurko kanta berri ta ye-ye aldeak euskeraz jantzita ematen. Ba-zan antxe jendea ta txaloka beroa.

Beti bezela, izan da norbait orrelakorik euskeraz ez degula bear esan duana; baiña iñosokeri oietan astia alperrik galtzeko biderik ez degu. Aurrera joan beharko degu, gure izkuntza gaurko jolasetan sartzen. Gaztediaren sailetan, euskera entzun dedila, ta joan ditezela zakurraren zerera, euskeraz sermoiak bakarrik entzun nai dituztenak. (1966-II-6).

**Lehenago batean** Lurdesek abesten zuen kanta da, eta oin-oharrean dakarren bezala Gabriel Arestiren eraginez Agustin Ibarrola erreibindikatzeko konposatu zen manifestaldi antifrankista batean poliziak jo zuelako, eta urte batzuek geroago Imanol Lartzabalek doinu berarekin Xabier Etxebarrietaren hilketa gogorarazi zuen.

Eta *Agustin laguna jo dute*, [...] *sasikume hoiek garaile aterako dira*, ... Guk ere beste modu honetara kantatzen genuena kalez-kale: *Lengo batean...Xabier laguna hil zuten* [...] *beste bat hilko dute...*

Itzulitako kantei dagokienez badu beste ohar bat aski interesgarri dena, non esaten digun hasieran, adibidez, Georges Brassens-en **Sète hiriko hondartzan lurperatua izateko eskaria** kantaren kasuan oso egokipen librea egin zuela, han hemen abestuak aldaketatxo ezberdinekin, azkenean itzulpen ahalik eta literalena egitea erabaki duela. Halaber Paul Valery

poeta ospetsua Sète-ko kanposantuan dagoela lurperatua, eta horrela hobeto konpreni daitekeela hitzen zentzua, Brassens-ek Valery-ri dioena.

Iratxe Retolaza, literatur kritikariak *Berria* egunkarian (2006-XI-19), besteak beste, honela komentatu zuen “Doinu existentzialak” deitu erreseinan:

Xabier Lete kantu-egilearen irudira hurbiltzeko prisma anitz ditugu, foku anitz, txoko anitz. Alde horretatik, liburu hau testigantza aberasgarria da, ahots anitzekoa. Alabaina, bilduma aurkezteko idatziriko orrietan, hitzaurrean, Xabier Letek bere ibilbidearen berri ematearekin batera, bere ibilbidea bera auzitara, ezbaira, zalantzara darama, baina, halaber, ibilbide hori irakurtzeko proposamen propioa egiten digu. Hau da, Xabier Letek kantu eta poemen bilduma ez du biluz-biluzik eman, ahots-aniztasun hau ez du umezurtz utzi, baizik eta haren inguruko hausnarketa eta irakurketa pertsonalak egin ditu, bilduma zeharkatzen duen hari gidari eta jostuna mamituz: begirada existentziala, doinu existentziala.

Iruzkina bukatzean beste puntu interesgarria ere iradokitzen digu, alegia, badela kantutegi honetan *abozko literaturaren eta literaturaren idatziaren arteko zubi gintzaren aldarrikapenik*.

Bere aldetik Gotzon Egiak eginiko “Xabier Lete, itzultzaile” artikuluan<sup>44</sup> azpimarratzen digu Lete kantariaren eta poetaren formazioan zein eragin sakona izan zuten hautaturiko abeslari eta egileek, baina baita ere soma daitekeela ikuspen estetiko edo sozial

---

<sup>44</sup> Gotzon Egia, “Xabier Lete, itzultzaile”. SENEZ, Itzulpen aldizkaria. N° 41, Donostia 2011, 43-82.

batez gainera *euskara batuaren oinarriak zedarritzen ari ziren garaietan, bizkuntza eredu batzuen aldeko hautu batzuek.*

## EGUN SENTIAREN ESKU IZOZTUAK (2008) [ESEI]

Estetikoki Pamiela argitaletxeak plazaratu liburu hau, Lete bizirik zelarik oraindik, agian hoberentzat jo dezakegu, errata xume batzuk eta poema presentazio zenbait hobe zitekeen arren. Azalak Jose Salis Camino<sup>45</sup> pintorearen margoa dakar, paisaia elurtu eta desolatua bistaurrean, eta bigarrena irudiak 5. orrialdean Caspar David Friedrich<sup>46</sup> margolari alemanak 1821an eginiko *Nebel im Elbtal bei Schandau* herriarena.

Dedikazioa aurreko liburua bezalaxe Lurdesentzat da, eta hura *gaueko ordu isiletatik* eskainia bazen oraingo hau, *gure maitasunaren egoitzetatik* idatzia da. Ondoren liburua bost zatitan banatzen da: a) *Atarikoak* bost poema(zati)ren itzulpenekin osatua, Salvador Espriu, Cesare Pavese, Giuseppe Ungaretti, Anna Akhmatova, Ovidio, eta Antonio Machado eskainiak; b) *Udazkenekoak* (I-XXXVII); c) *Vulnerant omnes*; d) *Joan zirenei* (I-VI); e) *Obabako lurraldeari begira* (I-IV); eta e) *Neguan izan zen* (I-XXX). Orotara, beraz, 82 poema eta poema zati.

---

<sup>45</sup> José Salis Camino (Santoña 1863 – Irun 1927), aita frantsesa eta ama euskalduna izan zituen, eta Bidasoako pintura eskolako partaidea da. Madriden, Bruselasetan, Parisen eta Erroman ere izan zen margolari ezberdinekin harremanak izan zituelarik. Erretratoak, itsasoa eta paisaia ezberdinetan inspiratu zen eta Sorellaren kideztzat jo dezakegu.

<sup>46</sup> Caspar David Friedrich (Greifswald 1774 – Dresde 1840), erromantizismo alemandarraren paisaiagilerik inportanteenetarikoak.

Liburu honetako 21 poema hautatuz Joxan Goikoetxea akordeoilariaren laguntzaz Iruñeko Planetarioan 2008ko abenduaren 2an grabatu zuen **Neguan izan zen** izeneko errezitaldia. Hona zerrenda eta ESEI liburuan dagozkion orrialdearen zenbakiak

b) <i>Udaꝥkenekoak</i>	Eguneroko etxean	ESEI, 27-28
	Hiria zatikatzen duen ibaia	“, 41-42
c) <i>Vulnerant omnes</i>	Negua Venezian	“, 63-64
	Uste izan genuen	“, 85
	Zenbat aldiz mintzatu ginen	“, 95
	<i>Itinerarium</i> , Antonio Machadoren bidetik	“, 101-102
	Ezagutu ditut gerla galduetatik	“, 97
	Beste leku ez hain urrunekoetan	“, 113
	Ezin dizuet ezer gehiago eskaini	“, 115-116
	Gure aita, zeruetan eta herbestean zarena	“, 117
d) <i>Joan zirenei</i>	Eskaintza F.L.O. nere aita zenari	“, 123-124
e) <i>Obabako lurraldeari begira</i>	Urtariletik eguerdi batean	“, 141-142
f) <i>Neguan izan zen</i>	Azaroko arratsaldean elurra ikusi dut	“, 145-146
	Elurtu ote dira elorri xuriak	“, 151-152
	Gauetz bakarrik dago dena	“, 161
	Kantu zahar batek	“, 165
	Zergatik samintzen nauzue hainbeste	“, 169
	Enparantzetako haur horiek	“, 181-182
	Neguan izan zen	“, 149-150
	Neguko abenduetan	“, 199
	Azken hilabete haiek	“, 197

Irakurketan nabarmentzen da Xabier Leteren indarrak jadanik guttitu direla, ahotsa eskastu eta azken testamentuaren antzeko zerbait nahi digula utzi, *agurraren ordu samin gorenean*. Aldaketa batzuetan euskalkiaren ñabardurak sartzen dituelarik, bertso idatzia baino pertsonalago gertatzen da ahoskatua, errepikapenak ez direlarik falta: *zinen > ginen, zügan > güregan, betirako betirako, hemen gaude hemen gaude, errukarria errukarria, keinuka keinuka, (ez) ezin nauzue, goizero goizero, leial leial, gaur gaur, urrun urrun, egun bat gebiago egun bat gebiago, Errusiya, mendiyan, tokiya, harrigarriya*. ...Eta azkeneko bertsoan latinezko esaldia bukatuz: *in manus tuas Domine... comendo spiritum meum*. Jauna zure eskuetan lagatzen dut nire izpiritua.

Liburuan ageri zaigun lehen aipamena Salvador Espriu<sup>47</sup> idazle katalanarena da. **Si a la cendra** poeman bere amaren heriotzari eskainitako planctus bat da: *No veuràs la fondaria / on séncalmia la pluja... Per què tantes paraules/ per al meu cansament?* Azken bi bertsoleroekin hasten da poemategia: *Zergatik hainbeste hitz / nire nekearentzat?* Atarikoak ixten duen bostgarren poema zatia ere Espriurena da, **Noves paraules d'Agur**-etik jaso, *vell caminant*-i, bidaiari zaharrari zuzendua, bukatzen duela honako bertsoleroarekin: *No esgotaràs tots els noms de la mort, ez dituzu inoiz heriotzaren izenak agortuko*. Heriotzaren presentzia gero eta nabarmenago agertzen zaigu, beraz, azken poema liburu honetan. Atarikoak beste hiru poeta hauen aipuek osatzen dute, bere buruaz beste egin zuen Cesare Pavese<sup>48</sup> poeta italiarioaren,

---

<sup>47</sup> Salvador Espriu (1913-1985). Poeta, antzerkigile eta nobelista. Bere obren artean: *Primer historia d'Esther* (1948), *El caminant i el mur* (1954), *La pell de brau* (1960)...

<sup>48</sup> Cesare Pavese (Santo Stefano Belbo 1908 – Torino 1950). Poeta, nobelista eta saiogile. Besteren artean: *Verrà la morte e avrà i tuoi occhi* [Heriotza etorriko da eta zure begiak izanen ditu](1951) poema liburuaren egilea. Amodio desengainu baten ondoren bere buruaz beste egin zuen Torinon (1950).

*Anche la notte ti somiglia*-k, Anna Akhmatova<sup>49</sup> poeta errusiarraren Ifarraldeko laugarren eresiatik hartua *Guttika guttika guregandik urruntzen doa*-ek, eta Giuseppe Ungarettiren<sup>50</sup> *Non gridate piu. Ez gehiago oihurik egin* liburuaren kontrazalean ere ageri zaigunak.

*Udazkenekoak* bezala izendatutako hamabi poematan doinu malenkoniatsu batean idatziak daude, oroitzapen batzuek ere ageri dira itsasondoan datzan Empuries hiri lokartuaz eta nola *zuk, Ifigenia esan zenuen / jainko ankerren apaiz ustekoek / beladatarren fagoretan sakrifikatu zutena...*

*Vulnerant omnes, sailean, — ultima necat*, bezala bukatzen den esaldia Urruñako elizdorrean osorik latinez ageri dena Sarakoan euskaraz ematen da: *Guziek zauritzen, azkenekoak hiltzen —*, Xabierrek ez du ahanzten mundu grekolatinoa erreferentzietan (*Peloponesoko gure gerlak*). Halaber erabat ezkor eta gerla galduko zenaren segurantzaren osoarekin, *bazekitelarik hasieratik galtzaile izendatu zituela / jainko urrunekoen halabebaritsuak*.

Antonio Machadori eskainitako *Itinerarium* delakoa honen zenbait poemak iradokitako irudiekin osaturik dago. Hala, *He vuelto a ver los álamos dorados / álamos del camino en la ribera / del Duero...* honako bertsoan bilakatu dira: *Isilik daude gaur erriberako alamo xuriak*. Eta A José Maria Palacio dedikatuan dioenean, *¡Oh mole del Moncayo blanca y rosa!*, beste honetan: *larroxa eta elur zuria da Moncayo*. Bukatzen duelarik gaztelaniaz: *Soria, tan bella bajo la*

---

<sup>49</sup> Anna Akhmatov (Odessa 1889 – Moscu 1966). Nikolái Gumiliov eta Ósip Mandelstam-ekin batera mugimendu poetiko acmeistaren partaide eraginkorrenetakoa. Bi senarrak fusilatua eta kontzentrazio esparruetan hil zitzaizkion. Bere obren artean: *Anno Domini MXMXXXI* (1922), *Requiem* (1935-40), eta *Poema sin héroes* (1962).

<sup>50</sup> Gabriel Ungaretti (Alexandria 1888 – Milan 1970). Soldado Lehen Gerra Handian, poema liburu hauek idatzi zituen: *El Puerto sepultado* (1916), ...*El Dolor* (1947). Obra osoa gaztelaniaz honetan bildu zen: *La vida de un hombre* (1977).



*luna*. Halako inpresioa sortu baitzuten nonbait Soriako hiriak edo parajeek, baina batipat Machadoren bertsoek.

Euskal poetak ere gogoan dauzka, noski. *Itxaro Bordari, ifarraldeko poetari, maitasunez* eskaintzen dio poema bat, non kontatzen dion udazkenean hurbiltzen dela aldizka hango lurraldeko paisaiak eta natura dastatzera. Gabriel Aresti ez aitatu arren 115. orrialdean aipatzen digu honen bertsorik ezagutuenetarikoa, *aitaren etxea defendituko dut*. Xabier Lizardiren gorazarrez ere badu honela bukatzen duen beste poema bat: *pentsatuz poesia zauri bat dela lehenik / bibotz-begietan*. Hau da poesiaren sentitzeko modua argi eta garbi aurkezten digu Xabier Agirreren liburu miresturikoaren tituluarekin amaituz. *Bitoriano Gandiaga, Jexux Arze eta Julen Lekuona gogoan* hitzekin hasten du beste poema, galera, harreman galdua deitoratuz baina itxaroten laster izanen den besarkadaren eguna. Imanol *Larzábal lagunari agurra* ere benetan hunkigarri gertatzen zaigu irakurtzerakoan zauriak ezin xukatuz, nahiko liokeela lore sorta bat eskaini, ...*barkamena eskatu / hainbestetan bakarrik utzi zintugulako*.

Eta *Joan zirenei* eskainitako sailaren akaberan *Joan Mari Lekuona zenaren oroigarri*, lagun zaharrari dedikatzen dio galdera, kezka eta desio benetan poetikoarekin: *Virgilio berraragitu batek eraman ote hinduke / goizalba ederrenetan argitzen diren egun distiratsuetara...*

**Neguan izan zen** sailean naturarekiko harremanaz ari zaigu, I. poeman *2005eko urteko azaroaren 27an, igandea, Lurdes bisitatzera erietxera nindoala*, (Diskaren irakurketan negarrari ezin eutsiz erdi-itota) burutua dela dio, eta Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko mugan dagoen *Bianditx* mendia oroitzen duelarik kanta zaharrarekin bukatzen du: *goiko mendian elurra dago, errekaldean izotza*. Ohar gaitezen abesti honen tradizio luzeaz ohartzeko Joan Perez de Lazarragaren XVI. mendeko eskuzkribuan jada Maria Estibaliz Sasiola (1550 a. – 1611)

debarraren poemen artean aurkitzen dela *Goiko mendian erurra daidi...* kantaren aipamena<sup>51</sup>. *Negua izan zen*, lau aldiz errepikatuko du, *eta elurra hilator errukitsu zenean*, alegia, hil-jantzi, hil-oihal bezala kontsideratzen duela elurra.

Pantxika Nobliak dioenez aipatu lanean (ikus 29. oin-oharra) Xabierrentzat elurra hitza, pena eta malenkoniaren sinboloa da. Izotza heriotzarena. Heriotza kimuekin konparatu nahi luke (neguan babesean bilduak baitira eta gero idekitzen udaberrian), baina zoritxarrez *esku izoztuek ez dira berotuko*, eta ez idekiko. Hala bada, emazteari, Lurdes Iriondori, 2005eko neguan, zehatzak izatearren, abenduaren 28an hirurogeita zortzi urte zituela, hila baitzitzaion, amodio galduarentzat sortutako garrasi saminak lirateke bertsuok. Poeta alargunak, haur umezurtz baten antzera, galdu duen maitearen eskuak, gorputza nahi luke ferekatu, baina ezin aldendu baita betirako, oinazearen oinazez, barne oihu sentikorrak besterik ezin dizkiolarik eskaini.

Halaber XI. poeman esaten digu nola ustekabean kantu xahar batek hunkitu duen, zeinaren lehen bertsolerroa ez duen emango berearen azkena bezala baizik: *adios ene maitea, adios sekulako*. Eta VIII. poeman, pixkat atzerantz joaz, itsaso beltzaren hegieta desterratua izan zenaren poeta latinoaren (Ovidio, *Tristia*, III, 1) izena ematen ez duen arren, irakurle adiskideari eskatzen dio esku gozoa luza dezan nekeaz akiturik dagoen bidaiariari, haren latinezko bertso batekin bukatzen duelarik: *missus in hanc venio timide liber exulis urbem*.

Entzuten duen musikaren berri ere emango digu, alegia, hain gogoko duen Juan Sebastian Bach-en (XIII) sonata eta adagioak, eta irakurketaren nondik norakoak, Firenzen zehar dabilen Danteren Ifernua (XXII). Eta psalmoen doinua, otoitzen modua duten

---

<sup>51</sup> Patri Urkizu (ed.), *Joan Perez de Lazarraga. Dianeaz & Koplak*. Madrid 1567. Erein, Donostia, 2004, 231.

bertsoekin bukatzen du liburua honela hasten den poemarekin hain zuzen: *Jaso nazazu. maite, azken egunean* (XXX).

Sebastian Gartzia Trujillok artikulu luze eta sakon batean<sup>52</sup> dioskunez Xabier Leteren esperientziak misterio eta sinesmenerako bide alternatibo batzuk azpimarratzen ditu, hala nola, a) Edertasunarena (izadiarena, artearena...), b) Lagunenganako / lagunengandiko hurbiltze hunkigarriarena eta c) Otoitzarena.

### **Azken poema: *Bazoaz bizitzaren bide galduetatik* (2009)**

ERLEA aldizkariaren<sup>53</sup> poema honetan irakurleari poeta zuka mintzatzen zaio, baina zu hori bera ere bada. 56 bertso libretan bizitzaren ibilbide tristeaz, eta bide horretan daukan *kontzientzia besteratuaz*, alienazioaz dihardu. Eta egiten duen aurkezpen edo iruzkinean argitzen digu eta errepikatzen bizidun oro, neurri handi batean *izaki herbesteratua* dela, eta hitzek ez dutela *erredimitzen ez galera, ez heriotza, ez kulparen kontzientzia eta esjakintasun funtsezkoena ere*.

Dena den kontsidera dezakegu, ez dela hau idatzi zuen azken poema, zeren eta Jose Anjel Irigarayk esandakoaren arabera, Xabier Letek hil aurretik aitortzen zion jarraitzen zuela poemak idazten eta hautatua zuela gainera hurrengo poema liburuaren titulua: *Herbestean*.

---

<sup>52</sup> Sebastian Gartzia Trujillo, , “Sinistu nahi dut. Lagundu sinesgabe honi” (Mk 9, 24), *Hamaika euskal literato eta Jainkoa*. EHU, Euskal Literatura saila 15, 2016, 715-805.

<sup>53</sup> Xabier Lete, “Poemaren irakurketa edo zentzuaren egiturak”. *ERLEA* 1, urria, 2009, Bilbao. 97.

Espero dezagun, bada, KM kulturunean dauden eskuzkribuak aztertu ahal izatean eta plazaratzean azken poemategi honen edertasunek beste aurrekoen gisan lilura gaitzaten.

Sailkatze ohitura gehiegiak eraginik agian, lau Xabier Lete ezberdin ematen dira KI-ren epilogoaren bukaeran haren poemagintzaren ibilbidean: kritiko-sentimentala (*Egunetik egunera orduen gurrpilean*), gordin-zinikoa (*Bigarren poema liburua*), etsi-ukakorra (*Urrats desbideratuak*) eta mistiko-tragikoa (*Zentzu antzaldatuaren poemategia*, *Biziaren ikurrak*, *Egunsentiaren esku izoztuak*).

Ez dut uste, ordea, azken hiru liburuak, lerro eta jokamolde beretsuan ezar daitezkeenik. Azkena beste guztietatik ezberdina baita, zeren eta Ravelen boleroak bezalatsu bereganatzen dituelarik aurrekoen aireak modu ezberdin eta sorkuntza berri batean eskaintzen dizkigun.

Hara bada, laburbiltzeko hitz gutxitan emana nire hurbiltze hausnarketa. Xabier Leteren prosa eta poesia bat da eta era berean poliedrikoa. Aberatsa, bizi-bizia, kontraesanez josia, edertasunaren eta eternitatearen bila mundu klasikoan murgildua, kristau erlijioaren oihartzunez oratua, eta kanta herrikoiez jantzia, erabat humanista.

## BIBLIOGRAFIA

**\*Liburuak beltz nabarmenez daude idatziak.**

## ESKUZKRIBUAK

Gabriel Arestiren *Justizia txistulari*, euskara “normalago” batean kopiatua. KM. MS 091-94-

95

Gutuna Koldo Mitxelenari. 1974-V-18. (MS-KM-C 205)

Gutuna Koldo Mitxelenari. 1977-VI-16. (MS-KM-C 205)

...

## XABIER LETEREN ARTIKULU ETA LIBURUAK

### 1965

“CARRASQUEDO OLARRA jauna eta beste batzueri”. ZERUKO ARGIA 1965-V-23.

“Sisifo, gure anai hura”. ZERUKO ARGIA 1965-X-31.

“Zahartu egin gera”. ZERUKO ARGIA 1965-XI-14.

“Herri bat zapaldu dute”. ZERUKO ARGIA 1965-XI-28.

“Europaren etorkizunari buruz”. ZERUKO ARGIA 1965-XII-26.

### 1966

“Tarragona aldean”, LARTAUN, 1966-II-1, 420.

“Gauerdiko ezquila urte zahar arratsean, requiem”, ZERUKO ARGIA 1966-I-2.

“Maitasuna eta eriotza”. ZERUKO ARGIA 1966-VIII-7.

“Jakin nahiean”. ZERUKO ARGIA 1966-IX-9.

“Hiru eskutitz Johnson í”. ZERUKO ARGIA 1966-XI-27.

#### 1967

“Herria, metafisika eta eskubideak”. ZERUKO ARGIA 1967-XI-5.

“Living Theatre. Eskandalotik azterketara”. ZERUKO ARGIA 1967-XI-26.

“Ezkertasuna”. ZERUKO ARGIA 1967-XII-3.

“Herri artixtak herriarekin lanean”. ZERUKO ARGIA 1967-XII-24.

#### 1968

“Katalandar teatroa: Prima historia d’Esther”, ZERUKO ARGIA 1968-I-21.

“Frantz Kafka. Bakardadetik bakardadera dijoan bidean”, ZERUKO ARGIA 1968-V-7.

“Joan Manuel Serrat edo Eurovisionera joan nahi ez duen mutila”, JAKIN, 30, 40-41.

*Egunetik egunera orduen gurpilean*, Cinsa, Bilbo, 1968.

#### 1969

“Betiko zezena toreatzen”, ZERUKO ARGIA 1969-IV-6.

“Poetearen Lurrak” ANAITASUNA, 175. zk., 1969-X-30.

“Bide eskutua, Asarre egon nahi nuke”, Juan San Martin, *Uhin berri 1964-1969 bilduma*.

Donostia, Sociedad Guipuzcoana de ediciones y publicaciones. 127-133.

#### 1970

“Sarrera”, *Augustin Zubikarai, “Bizi Garratza”, “Mendu Zabarrak”*, Irakur sail, Donostia, 9-15.

“Kanta herrikoia prolema bezala” (I). ZERUKO ARGIA 1970-XI-1.

“Barbara Dane gure artean. Ipar Amerikako kantaria”, ZERUKO ARGIA 1970-XII-6.

#### 1971

“Kanta herrikoia prolema bezala” (II-IV). ZERUKO ARGIA 1971-I-10; 1971-I-17; 1971-

II-7.

“Euskal kanta berriei begiratu bat”, OARSO, Errenteria, 20-22.

“Ivan izugarria”, ZERUKO ARGIA 1971-III-7.

“Xabier Lizardi poeta”, ZERUKO ARGIA 1971-III-21.

“Etxola bat plaza nagusian”, ZERUKO ARGIA 1971-IV-25.

“Pi de la Serra, Francesc”, ZERUKO ARGIA 1971-VI-20.

***Udazkenean.*** Hernani.

## 1972

“Pio Baroja eta hemeretzigarren mendea”, Elkar-lanean. *Pio Baroja Bere ehunurteburuan: 1872-1972*. Etor, Bilbo, 1972, 29-83.

“Argia” taldeko dantzariekin. Gipuzkoako dantza eta soinu zaharretaz”, ZERUKO ARGIA 1972-V-14.

“Orixeren poesiaz eta honen hizkuntzaz”, ZERUKO ARGIA 1972-X-1.

“Oartzungo INTXIXU teatro taldea”, ZERUKO ARGIA 1972-X-29.

## 1973

“Julio Caro Baroja bere osabaz mintzo. Abenduaren 28an Itzea Pio Barojaren ehunurteburua ospatuz”, ZERUKO ARGIA 1973-I-7.

"Aintzin solasa" in J.M. LEKUONA: *Muga beroak*, Mensajero, Bilbo.

“Goiko Kale” edo beste denbora galduaren billaketa”, ZERUKO ARGIA 1973-XI-25.

“Txakolin garratzaren bihotz beroa”, ZERUKO ARGIA 1973-XII-2.

“Il giardino dei Finzi-Contini”, ZERUKO ARGIA 1973-XII-9.

## 1974

“Bertsolari ala morroi”, ZERUKO ARGIA 1974-I-13.

“Bertsolari baten filosofia: Oartzungo Kazkazuri”, ZERUKO ARGIA 1974-I-20.

“Zazpigarrenean deskantsatu”, OARSO, Errenteria, 34-36.

“Josep Pla eta Francesc Cambó”, ZERUKO ARGIA 1974-II-10.

“Chilen hildako bi kantari”, ZERUKO ARGIA 1974-II-17.

“Kantuz eta dantzaz (Lasarteko ikastolako haur talde Donostian”, ZERUKO ARGIA 1974-III-17.

“Hiru gizon bakarka”, ZERUKO ARGIA 1974-III-31.

“Musikak ez du piztirik baretzen”, ZERUKO ARGIA 1974-IV-28.

“Geografía diacrónica del euskera”, ZERUKO ARGIA 1974-VIII-18-25.

“Stanley G. Payne edo Euskal Nazionalismoa”, ZERUKO ARGIA 1974-X-6.

“Trudigintza eta antzerkia. Antzerkitaldeak. Oteiza Ondarrabian”. ZERUKO ARGIA 1974-X-13.

“Leonardo da Vinci, edo unibertsal jakintza”, ZERUKO ARGIA 1974-XI-3.

“Mintzaldi, kultur aste, hamabostaldi”, ZERUKO ARGIA 1974-XI-10.

“Gure elizen estetikaz”, ZERUKO ARGIA 1974-XI-17.

“Vittorio de Sica-ren heriotzean”, ZERUKO ARGIA 1974-XII-8.

“Els Joglars”, ZERUKO ARGIA 1974-XII-22.

“Mendaro Txirristaka Duke de Kilimnon”, ZERUKO ARGIA 1974-XII-22.

“Xabier Lizardi edo poesia gailen”, *Xabier Lizardi, olerkari eta prosista*. X. Lete, A. Zelaieta, A. Lertxundi. Jakin 1974, 13-43.

*Bigarren poema liburua*, Gero, Bilbo, 1974.

## 1975

“Olentzero ere heterodoxo?”, ZERUKO ARGIA 1975-I-12.

“Gipuzkoako Unibertsitateaz hitz bi”, OARSO, Errenteria, 21-22.

“Jon Miranderen umore beltzaren modelak”, ZERUKO ARGIA 1975-II-9.

“Question Mark Farker (Orson Welles)”, ZERUKO ARGIA 1975-III-23.

“Juan Mari Irigoien, edo gure iragan urbila”, ZERUKO ARGIA 1975-V-18.

“”Eta Abar” Olariagaren umore liburua”, ZERUKO ARGIA 1975-V-18.

“Gabriel Arestiren heriotzean”, ZERUKO ARGIA 1975-VI-15.



“Donostiako XXIII Zine Festibala”, ZERUKO ARGIA 1975-X-5.

“Pier Paolo Pasolini”, ZERUKO ARGIA 1975-XI-23.

“Kritikaren kritika”, ZERUKO ARGIA 1975-XII-7.

“Anton Valverderen diskoaz”, ZERUKO ARGIA 1975-XII-14.

“Xabier Lete euskal kantari. Elkarrizketa.” ZERUKO ARGIA 1975-XII-21.

### 1976

“La caduta degli Dei (Luchino Visconti)”, ZERUKO ARGIA 1976-II-29.

“Ondarroa: Lana eta festa”, ZERUKO ARGIA 1976-III-7.

“Lluís Llach, Viatge a Itaca”, ZERUKO ARGIA 1976-III-14.

“Bi poeta gazte (I) (Mikel Arregi eta Koldo Izagirre)”, ZERUKO ARGIA 1976-IV-4.

“Bi poeta gazte (II)”, ZERUKO ARGIA 1976-V-2.

“Argentinatik datorrigun zine berriaz”, ZERUKO ARGIA 1976-V-9.

“Jon Miranderen poemak”, ZERUKO ARGIA 1976-V-23.

“Lapondar poeta baten negarra. Poemak”, ZERUKO ARGIA 1976-V-30.

“Donibane Lohitzunen (Ortziken)”, ZERUKO ARGIA 1976-VI-13.

“Foruak eta Bertsolaritza”, ZERUKO ARGIA 1976-VII-18.

“GARAIA astekariak”, ZERUKO ARGIA 1976-VII-25.

“Xuberoako Santa Garazin Pastoral”, ZERUKO ARGIA 1976-VIII-8/15.

### 1977

“Kanta berria, erresistentzi abestia”, JAKIN, 1977, 4. zkia., 24-28.

“Euskadiko euskara batetan”, GARAIA, 1977-II-10/17.

“Euskadiko euskara batetan”, ZERUKO ARGIA 1977-II-10/17.

*Antzerkia deuseztik izatera.* Itxaropena, Zarautz.

### 1978

“Jacques Brel”, ZERUKO ARGIA 1978-X-22.

“Lauaxeta Valverderengan”, ZERUKO ARGIA 1978-XI-19.

Negu hotz batean, *Agiriak, Euskal poetak eta artistak. G. Arestiren omenez*, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, 151-152.

**1979**

“Eztabaida argituz”, ZERUKO ARGIA 1979-I-14.

**1980**

"Hitzaurrea" in TEJERIA, M.: *Zer nahi batez*, Erein, Donostia.

“Anaitasuna-ren zuzendari jauna”, ANAITASUNA, 402. zkia., 1980-05-16.

**1981**

*Zer nahi batez*, Martin Tejeriaren poema liburua”, ZA, 1981-II-1.

*Urrats desbideratuak*, GAK, Donostia, 1981.

**1982**

“Xabier Leterekin Garazin. “Euskal gizartearen zatiketaz kezkatu”, (Z)A, 1982-V-2

**1983**

“Lizardiren izpiritua bizirik, mahai baten inguruan”. J. Kortatzar, Xabier Lete, Juan Mari Lekuona, Anjel Lertxundi. A, 1983-III-20.

**Alzateko jaun.** Pio Barojaren obraren itzulpena. ANTZERTI, Donostia, 62. Alea.

**1984**

“Bernardo Atxagaren “Bi anai” ri buruz Xabier Leteren iritzia”. MS, KM, CA-37 F-25.

**1988**

“Bi gizon eredugarri gogoan: Don Manuel Lekuona eta Koldo Mitxelena-ren oroitzapen eta gorazarrez”, *Zure Foru Aldundia*. Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldizkari berriemailea, 1. zkia, maiatza, 20-21.

## 1991

“Xabier Lete bere baitan ibiltari”, Elkarrizketa, PLAZARA, Irun 18zkia, 19-24.

“Xabier Leterekin bere haritik: Oiartzun, politika, kantua, herria”. Elkarrizketa Oiartzun urtekaria.

## 1992

*Zentzu antzaldatu*en poemategia, BBK, Bilbo.

*Biziaren ikurrak*, Erein, Donostia.

## 1993

“Gezurrarren gorai-pamena”, EGUNKARIA, 1993ko azaroak 28.

"Gu, zaharrok", EGUNKARIA, 1993ko abenduak 26.

## 1994

"Jubilatu

"Eskubideen rmitoa", EGUNKARIA, 1994eko Otsailak 20.

"Aranismoaren aker beltza", EGUNKARIA, 1994ko martxoak 20.

"Kulturaren erretolikak", EGUNKARIA, 1994ko apirilaren 17.

"Hirien dekadentziak", EGUNKARIA, 1994ko maiatzaren 15a.

"Mintza gaitezen Espainiak", EGUNKARIA, 1994ko ekainaren 12a.

"Arrearen noraezaz", EGUNKARIA, 1994ko urriaren 9a.

"Aberri zantzutuaz", EGUNKARIA, 1994ko azaroaren 6a.

“Aberriaren amets eder galdua”. Hernani 1994.

## 1995

"Izadia eta poetak", EGUNKARIA, 1995eko urtarrilaren 15a.

"Ngcuko gogoetak", EGUNKARIA, 1995eko otsailaren 5a.

"Metafisikatik errukira", EGUNKARIA, 1995eko martxoaren 12a.

1996

"Zor baten ordain" in LEKUONA, J.M.: *Ibilaldia Itinerario*, E.H.U., Bilbao. 295-297.

1997

"Lizardi: Lirikotasuna gehi kontzeptua" in "Lizardi eta modernitatea", HEGATS, 14. zkia, ekaina.

2000

"Xabier Lete. (Sei poema). Itzultzaile: Patri Urkizu", SERTA, Revista iberorrománica. Poesía y pensamiento poético. Nº 5, UNED, Madrid. 241-251.

2001

"Xabier Lete: Deus ez da inorena, bizitza bera ere ez". Elkarrizketa Xabier Leterekin. Imanol Irigoien eta Arantxa Iraola. Argazkiak Juantxo Egaña. PAGOARTE.

2002

"Hitzaurrea", Antton Kazabon, *Emozioen kuliska*. Donostia, Elkar.

"Abertzaletasuna, nik sentitzen dudan moduan, bukatua dago, nazionalismoak irentsi du", Elkarrizketa Arantxa Urretabizkaiarekin. HERMES. 4. zkia, 42-50.

2004

R.M. RILKE, *Orduen liburua*. Iruñea, Pamiela.

"Jose Arregi: Xabier Leterekin kontu kontari". HEMEN, 4. zkia.

2006

"Xabier Lete: Ez naiz inoiz iraultzailea izan". Lander Arbelaitz elkarrizketa. ARGIA 2010-XII-19.

*Abestizak eta poema kantatuak*. Elkar, Lekuko, Donostia.

2008

*Poesiaz gogoeta bat*. Pamiela. Iruñea.

***Egunsentiaren esku izoztuak***. Pamiela, Iruñea.

2009

Bazoaz... *ERLEA* 1, urria, Bilbao. 97-98.

### **XABIER LETEREN OBRARI BURUZ**

AGIRRE Antxoka, “Elkarrizketa Xabier Leterekin”. BERTSOLARI, 35 zkia, 16-21.

ALVAREZ Jose Luis “Larresoro”, “Olerkari gazte bat: Xabier Lete” ZERUKO ARGIA,  
1968-09-22.

EGIA Gotzon, “Xabier Lete itzultzaile”, SENEZ, itzulpen aldizkaria, Donostia, 2011, 41  
zkia, 43-82.

GARTZIA TRUJILLO Sebastian, “Sinistu nahi dut. Lagundu sinesgabe honi” (Mk 9, 24),  
*Hamaika euskal literato eta Jainkoa*. EHU, Euskal Literatura saila 15, 2016, 715-805.

GARZIA Joserra, “Xabier Lete: guztien lana guztien esku”, HEGATS 47. EIE, Donostia  
2011, 39-50.

IRIGARAY Jose Anjel, “Limiar”, *Sete poetas vascos. Alén da fronteira*. Tradución par o galego  
Isaac Xubín. Tambo, Pontevedra 2009, 7-13.

IRIGARAY Jose Anjel, “Lore gorrien arteko poetika”, HEGATS, 2011, 47 zkia, 11-24.

ITURBIDE, Amaia, B. *Gandiaga, J.A. Artze eta X. Leteren poemagintza*. Erein, Donostia 2000.

IZAGIRRE Koldo (ed.), *Xabier Lete. Elurra ikusi dut*. Elkar, Donostia, 2017.

LEKUONA Juan Mari, “*Bigarren poema liburua* ri nere irakurketa”, ZERUKO ARGIA, 1974-  
12-15.

- LERTXUNDI Anjel, “Hitzaurrea”, *Bigarren poema liburua*. Gero, Bilbao 1974, 5-7.
- MARKULETA Gerardo, “Erromes nekatuaren salmoak” ZABALIK, *El Diario Vasco* (1992-IX-9).
- MARKULETA Gerardo, “Xabier Lete erromesaren otoitz liburua” ZABALIK, *El Diario Vasco* (1992-XII-9).
- MUJIKAZ Inazio, *Xabier Lete. (Auto)biografia bat*. Alberdania, Irun 2011.
- NOBLIA Pantxika, *Xabier Lete (I-IV): Poeta existentzialista, Poeta engaiatua, Poeta panteista eta Poeta mistikoa*. (Argitaragabea).
- OTAEGI Lurdes, “Xabier Lete: Izarren hautsa”. Donostia, EGAN 2004-2, 71-78.
- RETOLAZA Iratxe, “Doinu existentzialak”. *Berria*, 2006-11-19.
- SAN MARTIN Juan, “Lete ta Sarasola beste bi olerkari gazte gaurkotasunez beterik”. *JAKIN*, 1966, 22. zkia, 63-74.
- SAN MARTIN Juan, *Uhin berri. 1964-1969 bilduma*. Sociedad guipuzcoana de ediciones y publicaciones, Donostia 1969.
- SANCHEZ Maribel, “Leteren poetika”, *Gaurko Poesia*. Labayru, Bilbao 1993, 93-128.
- SERRANO Amaia, “Lete, Xabier” (Oiertzun, 1944 – Donostia 2010). [www.ehu.es/chg/literatura/idazleak](http://www.ehu.es/chg/literatura/idazleak).
- URKIZU Patri, “Juan Mari Lekuona, edertiaren bidetik gizonaren bila”, *HEGATS* 6, Donostia 1992, 69-75.
- URKIZU Patri (ed.), *Poesía Vasca. Antología bilingüe*. UNED, Madrid, 2009, 112.
- VALVERDE (A.) “Xabier Leteren musika”, *HEGATS* 47. EIE, Donostia 2011, 51-56.
- ZABALA (J.L.), “Sinestuna otoitz egiten duena da, eta Jainkoarena liskarrean dabilena”, *Berria*, 2009-I-30.
- ZELAIETA Anjel, “Gabriel Aresti eta Xabier Lete, poeta sozialak?” *JAKIN* 1986, 40 zkia, 129-135.







## AURKIBIDEA

### XABIER LETEREN PROSA ETA POESIAZ

Bi hitz atarirako.....	5
Xabier Leteren prosa.....	7
Teatroaz.....	9
Kantagintzaz.....	18
Bertsolaritzaz.....	25
Saiogintzaz (arteaz, politikaz eta bestez).....	28
Narrazioaz.....	40
Poesiaz.....	42
Xabier Leteren poesia.....	53
<i>Egunetik egunera orduen gurpillean</i> (1968).....	55
<i>Udazkenean</i> (1970).....	61
<i>Bigarren poema liburua</i> (1974).....	62
<i>Urrats desbideratuak</i> (1981).....	73
<i>Zentzu antzaldatuen poemategia</i> (1992).....	75
<i>Biziaren ikurrak</i> (1992).....	75
R.M. Rilke, <i>Orduen liburua</i> . Itz. X. Lete (2004).....	78

<i>Abestizak eta poema kantatuak</i> (2006) .....	81
<i>Egusentiaren esku izoztuak</i> (2008).....	85
Azken poema: <i>Bazoa z bizitzaren bide galduetatik</i> (2009).....	91
Bibliografia.....	93



